

“Somaliako proiektuan,
ekintzaile ikuspegia
lantzea izan da
gure lana ”

Ainara Atorrasagasti
Dot kooperatiba • 5



Elorrioko Metal Smelting enpresan
greba egingo dute lau langile
finkoren kaleratzeak salatzeko

Elorrio | Atzo eta gaur greba egin dute. ELA eta CCOO sindikatuek
otsailaren 3rako eta 4rako ere grebara deitu dute. • 9



Lan, pentsio eta bizitza
duina ozen aldarrikatu
dute Durangaldean



Atzoko grebak eragin handia izan zuen Durangaldean. Goizetik hasita, aldarrikapenez beteriko mobilizazioak egin zituzten eskualdean. Baserritarrek Mc Donald's-en aurrean egindako protestak utzi zuen irudirik bitxiena. • 2-3

Babesa irain
arrazistak jasan
dituen Abadiñoko
jokalariari

Abadiño • Joan zen domekan Arrankudiagan jokaturiko partiduan iraindu zuten jokalaria. Arrankudiagako Udalak, Abadiñoko Udalak eta Abadiñoko klubak irainak gaitzetsi eta jokalaria babestu dute. • 20



LOURDESKO AMA
IKASTETXEA

ETORRI GU
EZAGUTZERA

Bisita pertsonalizatuak

harrera@lourdeskoama.eus
www.lourdeskoama.eus 800
94 682 00 56

Borroka sozialak batzeko eguna

Aldarrikapen sozial ugari izan zuten oihartzuna atzo Durangaldean



DURANGALDEA • E.H./J.G.
Protesta giroa nabaria izan zen atzo. Oihuak entzun ziren hainbat merkataritza-gunetan. Lanuzteak izan ziren industrialdeetan. Ikasgela asko hutsik geratu ziren. Lepotik zapi gorria zintzilik zutela agertu ziren pentsiodunak. Egunerokotasunean etena egin, eta Durangaldeko hainbat herritarrek bat egin zuten atzoko greba orokorraz. Deneriko aldarrikapenak kaleratu zituzten, baina faktore nagusi bakarra izan zuten ardatz: bizimodu, pentsio eta lan duinak eskatu dituzte, hartara, bizimoduak erdigunean ipintzeko.

Greba orokorrera deitu duten sindikatuek (ELA, LAB, Steilas, ESK, Hiru, Etxalde eta EHNE) emandako datuen arabera, grebak jarraipen handia izan zuen atzo Durangaldean. Enpresa handi askotan grebak eragin handia izan zuen: Gestamp, Inyectametal, Bruss, Layde, Smurfit... ANBOTO astekariak ere greba egin zuen. Sindikatuek diotenez, Durangaldeko zerbitzu publikoetan ere jarraipen zabala izan zuen grebak. "Udaletxeak, udal eraikinak eta azpikontratutako zerbitzurik gehienak itxita egon ziren", diote sindikatuetak kideek. Irakaskuntzan ere zentrorik gehienetan ez zutela lanik egin azaldu dute.

Goizeko lehenengo ordutik sentitu ziren mobilizazioak. Berrizko Okango auzoan arbola bat bota zuten Euskotrenen katenariara. Ondorioz, tren zerbitzua etenda egon zen hainbat orduan.

Abadiñoko Mc Donald's-en aurrean egindako protestak irudi bereziki deigarriak utzi zituen, artalde bat izan zen protagonista eta. Grebara deitu zuten sindikatu eta eragileek ehunka lagun batu zituzten hanburgesategi ezagunaren aparkalekuan. Ertzaintza ere bertaratu zen, baina ez zen istilurik izan.

Tentsio uneak
Mobilizazioekin batera, tentsioa

ere nabaritu zen Durangaldean. Durangon, tirabira sortu zen Ertzaintzaren eta piketeen artean. Piketeen zeuden bi pertsona identifikatu zituzten. Bestalde, Zornotzan,

“

Udalak, udal eraikinak eta azpikontratutako zerbitzurik gehienak itxita egon ziren", diote sindikatuek

—

udaltzaingoak lagun bat atxilotu zuen, udaltzain bati eraso egitea egotzita.

Mobilizazioak herririk herri
Atzoko protestarik jendetsuenak Bilbon eguerdirako iragarrita zeuden arren, herririk herri ere mobilizazio ugari izan zen. Durangaldeko hainbat herritan protestak antolatu zituzten, grebagaz bat eginez. Iurretan, Atxondon, Elorrion, Zornotzan eta Berrizen manifestazioak egin zituzten. Abadiñon, hitzordua ipini zuten Traña-Matienako jubilatuek etxearen aurrean, arratsaldean elkarregaz Durangoko manifestaziora joateko. Atxondon, kazerolada eta kotxe karabana antolatu zituzten.

“

Atzoko protestarik jendetsuenak Bilbon eguerdirako iragarrita zeuden arren, herririk herri ere mobilizazio ugari izan zen

—

Gazteen oihartzuna
Gazteen aldarrikapenak ere ozen entzun ziren atzo. Gazte blokea eta herri elkargunea antolatu zituzten atzo goizean Durangon. Bilboko manifestaziora joan eta gero, bazkari autogestionatuan elkartu ziren merkatu plazan.



Abadiño.



Zornotza.



Berriz.



Durango.



Iurreta.



Atxondo.

Durango aurrekontuek "aldaketaren bidean lehen katebegia" ipini gura dute

EH Bilduk eta Herriaren Eskubideak diseinatutako lehenengo aurrekontuak dira. EAJk eta PSE-EEK aurka bozkatu dute. Oposizioak planteatutako emendakinek ez dute aurrera egin

DURANGO • EKAITZ HERRERA

Durungaldeko gainerako udalderriek onartuta zituzten ordurako. Durango falta zen, baina, azkenean, eskualdeko herriburua denak 2020rako aurrekontuak onetsi zituen, eguazten iluntzean. 36.129.518 euro eta berritasun bat dute: lehenengo aurrekontuak dira EH Bilduk eta Herriaren Eskubideak osatutako tandemean.

Inbertsioen "hazkundera"

Udal gobernu taldeak inbertsioei dagozkien diru partidak nabarmendu ditu. Dioenez, iaz inbertsioetara bideratutako diru partida 144.178 eurokoa izan zen (beste inbertsio batzuk aurreko aurrekontuen soberakinekin egin zituzten), eta 2.300.000 euro inguru baliatuko dituzte aurtun. Batez ere, hirigintzari, berdintasunari, kirolari, askotariko diru partidak handitu ahal izan dira. Kultura, ume eta gazteentzako ekintzak, kirolak, Antso Estegiz kalearen berrurbanizazioa, Aramotzeko parke berria, gazteriarentzako alokairurako laguntzak eta udal eraikinak berritzeko proiektuak ipini dituzte horren adibide modura.

eskerrak, askotariko diru partidak handitu ahal izan dira. Kultura, ume eta gazteentzako ekintzak, kirolak, Antso Estegiz kalearen berrurbanizazioa, Aramotzeko parke berria, gazteriarentzako alokairurako laguntzak eta udal eraikinak berritzeko proiektuak ipini dituzte horren adibide modura.

Erreakzioak

EH Bilduk eta Herriaren Eskubideak onartu zituzten aurrekontuak. EAJk eta PSE-EEK aurka egin zuten. Iker Urkiza EH Bilduko zinegotziaren esanetan, aurrekontuak "lehenengo katebegia dira aldaketaren norabidean". Herriaren Eskubidea taldeko Jorge Varela ere antzeko berbak izan zituen: "onartutakoa Durangoko herritarrekin eta elkarteekin landutakoaren fruitua da".

Oposizioa ez zen iritzi berekoa. EAJk "dezepzioa" eta "etsipena" agertu ditu. Mireia Elkoroiriberen esanetan, "aldebakartasunez, gardentasunik barik eta negoziatzeko aukerarik barik" landutako aurrekontuak dira, eta zalantza handiak ditu inbertsioak egin ahal izateko aukera errealez. "Aurreikusitako inbertsioen %80 (1.848.000 euro) zalantzezko hirigintza proiektuen menpe daude", diote jeltzaleek.

EAJk hainbat emendakin aurkeztu zituen. Baita PSE-EEKo zinegotziek ere, baina gobernu taldeak atzera bota ditu hauen bien eskeriak. Besteak beste, dendetako erakusleihoekin lehiaketa bat egitea, edo adinekoei laguntza emozionala eskaintzeko zerbitzua sortzea proposatu dute. Gobernu taldeak erantzun du handitu egin direla dendei eskaintako programak eta diru-laguntzak, eta adinekoei laguntzeko programak egin aurretik azterketa bat egin beharko lukeela.



Eguazten iluntzean egin zuten osoko bilkura.

Egoera txarrean dauden udal eraikinen diagnosia egin du Durangoko Udalak

Ezkurdiko frontoia, Tabirako kiroldegia, Pinondo Etxea, Urizarri egoitza edo San Faustoko frontoiko taberna dira "arriskuan" dauden instalazio publikoetako batzuk

DURANGO • EKAITZ HERRERA

Herriko hainbat eraikin publikoren diagnosia egin, eta udalak inbertsioak hasiko ditu, "arriskuan" daudela iritzita. Azken urteotan agintean egon diren gobernu taldeei egotzi die "urte luzeetako mantenu eza eta horien utzikeria". San Agustingo Urizarri egoitzaren estalkiak duen egoera kaskarrak aktibatu zuen dena. 2019ko amaieran, "eraikinaren

biziraupena bermatzeko" lanak egitea erabaki zuten, "urgentziaz". 61.450 euro inguru inbertitu zituzten, nahiz eta estalkia osorik konpontzeko lanek 515.000 euroko kostua duten guztira. Bestalde, Ezkurdiko frontoiko sabaitik ura sartzen da jokalekura. Konponketa egiteak 760.241 euroko inbertsioa beharko lukeela dio udalak. Tabirako kiroldegia zaharberritzeak 2.241.276 eu-

ro beharko lituzke (BEZ zerga aparte utzita). Fatxadak eta sabaia indartzeaz gainera, igerileku zaharrak eta futbol zelaira ematen duten aldagelak eraberritu beharko lirarteke. Pinondo Etxea ere zaharberritzeko premian dagoela dio udalak: "Eraikinaren egitura-aren ahalmena zalantzan dago". Egituraren egonkortze lanek soilik, 557.000 euro inguruko aurrekontua beharko lukete.

lari zein ekintza sozialari lotutako politikak hornituko dituzte. Gizarte ekintzetarako atala ere nabarmendu dute. Iazkoa baino 137.500 euro handiagoa izango da, eta beste horrenbeste egin dute aurrekontu parte-hartzaileetan jasotakoagaz: 351.000 euro kale argiteria hobetzera bideratuko dituzte.

Durango Udalak Bizkaiko Foru Aldunditik jasoko du aurrekontuak finantzatzeko zati bat, Udalkutxatik. Aurtun, handitu egin dira Aldundiak izandako diru sarrerak, eta horrek arrastoa utzi du Bizkaiko udalerrien aurrekontuetan. Durango ere, horri

anboto

Bixente Kapanaga, 9
48215 Iurreta - Bizkaia
Tel.: 946 816 558

Erredakzioa: 946 232 523
Publizitatea: 946 217 902
publi@anboto.org

2020ko urtarrilaren 31a
18. urtea - 792. alea

Lege gordailua:
BI-2268/01
ISSN:
1578-7028
Tirada:
12.000 ale

Zuzendaria: Jone Guenetxea Arrinda.
Erredakzio burua: Ekaitz Herrera Azkarraga
Administrazio burua: Itziar Belar Zubizarreta.
Administrazioa: Miren Abasolo Txabarri.
Publizitatea: Alazne Salcedo Artetxe eta Goretzi Alonso Armendia
Erredakzioa: Aitziber Basauri Gandiaga, Joseba Derteano Bilbao, Maialen Zuazubiskar Gallastegi, Aritz Maldonado Zabala, Igor Galarza Intxausti.
Maketazioa: Bea Sierrasesumaga Guezuraga, Nerea Azpiazu Beaskoetxea eta Ainhoa Iraola Mazorriaga.
Zuzentzailea: Mikel Azkarraga Etxegibel.



Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du



EUSKO JAURLARITZA

GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak diruz lagundua

“Somaliako gazteen artean talde lanaren balioa irakastea eta harresi kulturalak eraistea erronka bat izan da”

Somalian garatzen dabilen egitasmo batean, Ainara Atorrasagastik ekintzaile izaera izaten eta negozio berriak abiatzen lagundu die gazteei, UNICEF erakundeagaz batera

DURANGO • JOSEBA DERTEANO

Ainara Atorrasagasti Urizar (Durango, 1981) Somaliatik (Afrika) itzuli berria da. Astebete egin du Somalian, hango gazteei negozio eredu berriak zelan garatu daitezkeen irakasten, bera parte den Dot kooperatibak UNICEF erakundeagaz duen egitasmoaren barruan.

Zein da egitasmoaren helburua?

Hango gazteei enpresa berriak sortzen laguntzea. Egitasmo horiek baldintza batzuk bete behar dituzte: inpaktu soziala izan eta maila lokalean enplegua sortzen lagundu behar dute, jasagarriak izan behar dute ingurugiroagaz, eta ekonomikoki bideragarria izan behar du.

Zein izan da ikasleen profila?

16tik 26 urtera arteko gazteak dira. Gehienek unibertsitate ikasketak zituzten, baina ez denek. Proposatutako negozio ideiek zuten interesaren arabera, Somaliako Gobernu Kanpoko Erakunde batek egin zuen gazteen aukeraketa. Klaseak ematerako orduan, zer izan da zailena?

Ez daude ohituta taldean lan egitera. Gainera, Islama da erlijio nagusia, eta, esaterako, lehenengo egunean emakumeak aurpegia estalita etorri ziren. Klasean ere banaka eseri ziren hasieran. Hango gazteen artean talde lanaren balioa irakastea eta hainbat harresi kultural eraistea erronka bat izan da.

Ikusi duzu aurrerapausorik hortan?

Bai, belaunaldi berriekin berdintasunerako bidea nabaritu dut. Aurreragoko belaunaldikoak baino zabalagoak dira. Gainera, lan taldeak osatzerakoan, taldeko gidaririk gehienak emakumeak zirela konturatu naiz; eta eurek har-

tzen zutela inizatiba, eta berbarik gehien egiten zutenak zirela.

Zeintzuk dira arazo nagusiak negozio bat abiatzerako orduan?

Hango lanik gehienak asistentzialak dira, Gobernuak emandakoak. Ez diete irakasten inizatiba edukitzen. Gure lana ekintzaile ikuspegia lantzea izan da. Bestalde, finantziarioa lortzea ez da erraza. Hango Gobernu Kanpoko Erakunde batek elkarlanean, bide hori errazten ahalegintzen gara, bankuetako edo Gobernuak jendea haien negozio ideien aurkezpenetara gonbidatuta, esaterako. Eta etorri izan dira. Gobernuaren aldetik interesa ikusten da.

Aipatu ditzakezu gazteek landu dituzten negozio eredu batzuk?

Esaterako, eskolara joan ezin diren zatitako aplikazio bat sortu gura dute, irakaskuntza eskuragarriago ipintzeko. Beste talde batek plas-

“

Lan taldeak sortzerakoan, gidaririk gehienak emakumeak zirela konturatu naiz; eta eurek hartzen zutela inizatiba, eta berbarik gehien egiten zutenak zirela”

tikoa birziklatuz eraikuntzarako baldosak egin gura ditu. Emakume batzuek emakumeen gimnasioa sortu gura dute. Ezin dira gizonean egon, eta ariketa egiteko espazio baten beharrezana dute. Ez dute estetikatik egiten, osasun kontuengatik baino.



Oraingoarekin birritan egon da Somalian Ainara Atorrasagasti eta aurretik Mauritania ere garatu du egitasmoa bere lankideekin batera.



Gure ikasleen ahotan



“Ikasteko metodologiak eguneroko lanean du oinarri”

Definitu apur bat zeure burua: non egin dituzu orain arteko ikasketak? Baduzu hobby edo zaletasunik?

Durango Batxilergoa amaitu ondoren, Marketineko graduari apuntatu nintzen, baina behar bezala ez zela erabaki nuen, ez bainuen gustuko. Nirea, egia esan, zientziaren mundua da. Betidanik kirolaria izan naiz eta hainbat kirol praktikak zait, baina azkenengo urteetan surfagaz motibatuta nago, gero eta gehiago gustatzen zait, gainerako kirolekin alderatuta oso desberdina delako.

Zergatik aukeratu zenuen Ingeniaritza Elektronikako 3. maila ikasten ari da, Mondragon Unibertsitateko Arrasateko campusean.

Egia esan, zientziaren munduan murgildu gura nuen eta elektronika gradua interesgarria iruditu zitzaidanez, berau aukeratu nuen. Gaur egun oso gustura nago. Hainbat lagun ditut Mondragon Unibertsitateko ikasle edo ikasle ohiak direnak, eta bertan izandako esperientziez iritzi onak zituztenez, animatu egin ninduten ikasketak Mondragonen egitera.

Nola baloratuko zenuke orain arte bizitako esperientzia?

Urte bi hauetan esperientzia asko bizi ditut, batzuk oso onak eta beste batzuk ez hain onak, baina, orokorrean, oso pozik nago eta espero dut garatzen den denbora horrelakoa edo hobea izatea.

Nola definituko zenuke Goi Eskola Politeknikoan jasotzen duzun ikasteko metodologia?

Bere metodologiak bereizten du Mondragon Unibertsitatea besteengandik, egunerokotasunean, eguneroko lanean, eta ikasketa praktikoa dago oinarrituta. Urtero proiektu bi egiten dira eta proiektu horiek errealitatean lanean biziko ditugun esperientzietatik oso hurbil jartzen gaituzte eta hori oso interesgarria da.

Unibertsitatez zer da gehien gustatzen zaizuna? Badago ezer hobetzeko?

Orokorrean, unibertsitatea oso ondo dago nire beharrezanetarako. Etxetik hurbil dago, leku lasaia da eta giro ona dago. Gainera, lankideen eta irakasleen artean hurbiltasun handia dago. Beste alde batetik, garraio publikoa nahiko mugatua da eta, gure kasuan, elektronika eta informatikako graduak goiko eraikinean gaude, eta askotan beheko eraikinerara joateko beharrezana izaten dugu azterketak eta abar egitera. Beheko campusean, gainera, zerbitzu gehiago daude: kafetegia, jangela eta abar.

Etorkizunari buruz, zeintzuk dira zure asmoak?

Ez daukat ezer finkorik buruan, hemendik gradu amaiera arte asko daukat ikusi eta ikasteko. Beraz, etorkizunean ikusiko dut zein den nire bidea eta nondik jarraitu, baina esperientzia berriak bizitzeko prest nago.



Gazte talde bat euren egitasmoa UNICEF-eko ordezkari bati azaltzen.

Jaurlaritzak eta Otxandioko Udalak bizilekuak egingo dituzte gazteentzat eta beharrian ekonomikoa duten herritarrentzat

Alde biek hitzarmena sinatu dute; babes sozialeko 15 etxebizitza eraikiko dituzte Elizabarrin, eta gazteentzako zortzi bizileku gaztetxe pareko orubean



Sasoi batean zinema zegoen orubean etxebizitzak egingo dituzte gazteentzat.

OTXANDIO • JOSEBA DERTEANO

Otxandioko Udalak eta Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailak hitzarmen bat sinatu dute herrian etxebizitza promozioak egiteko.

Hitzarmenak hiru promozio aurreikusten ditu eta lehenengo fa-

sean bi gauzatuko dira: Elizabarrin bata eta zinema zaharra zegoen orubean bestea.

Elizabarri inguruan, 1.100 metro karratuko lursail batean, babes ofizialeko alokairuzko 15 bizileku egingo dituzte bloke batean, ba-koitza bere garajeagaz. Oraindino

zehaztu barik daude bizilekuen ezaugarriak: gela kopurua eta abar. Batez ere, egoera ekonomiko zaurgarrian dauden herritarrei bideratuta egongo dira etxeok, Egoitz Garmendia alkateak azaldu duenez. Udalak etxebizitza horietariko bi eskatzeko aukera du, larrialdi

sozialeko egoeretan erabili ahal izateko. Sasoi batean zinema zaharra zegoen orubean, gazteentzako zortzi bizileku eraikiko dituzte. Bizileku mota hauen ezaugarrietarik bat da gehienez lau urtean bizi daitekeela bertan. Batez ere, "gazteei" begirako bizilekuak izango

dira, Garmendiaren esanetan; "tar-teko irtenbide bat" izango da, beste etxebizitza baten bila dabiltzan bitartean. Eraikin horretan espazio amankomunak (sukaldea...) egitea da udalaren proposamena.

Udalak lurrak utzi eta gero, Eusko Jaurlaritzak lau urteko epea izango du promozio biak gauzatzeko

Otxandiarrek lehentasuna izango dute promozio bietako etxebizitzetan sartzeko. "Hein handi batean, promozio hauekin etxebizitza eskubidea bermatuko dugu gazteentzat eta egoera ekonomiko zaurgarrian daudenentzat", adierazi du Garmendiak.

Jaurlaritza arduratuko da promozioak gauzatzeaz, udalak lurrak utzita. Lurrak bereganatu eta gero, lanak lau urtean amaitzea jasotzen du hitzarmenak.

Egitasmoak epe luzeagorako beste promozio bat ere jasotzen du. Osakidetzagaz akordioa lortuz gero, zinema zaharreko eraikin berriko behealdean Osasun Zentro berri bat egitea da asmoa. Horrela, orain Osasun Zentroa dagoen gunean gauzatuko litzateke hirugarren promozioa.

TXINTXIRRI ELORRIKO IKASTOLA
San Pio, 3
ELORRIO
Tel.: 946 582 261
elorrio@ikastola.eus

ARDURAZ HEZI, NORTASUNEZ HAZI
www.elorrikoikastola.eus

Matrikula egiteko epea zabalik urtarrilaren 27tik otsailaren 7ra bitartean

ikastolaren karta, Q, Elorrio, and other logos are visible at the bottom.

Garaiko ume eta gazteek ludoteka zerbitzua izango dute otsailetik aurrera

GARAI • EKAITZ HERRERA

Zerbitzua kultur etxean eskainiko dute, hilean behin, zapatu batean. Garaiko Udalak ez du oraingoz ludoteka noiz zabalduko duten jakinarazi, baina aurreratu du Durango-ko Berbaro euskara elkarteak eskainiko duela zerbitzua, eta elkarteagaz adostu eta gero jakitera emango dutela zehatz noiz zabalduko duten.

Edozelan ere, udalak ohar baten bitartez jakinarazi duenez, ludoteka zerbitzuak helburu argi bat du: Garaiko ume eta gazteen arteko harremanak sendotu, ehundu eta euskararen erabilera sustatzea. Zerbitzua erabili gura duten herritarrek udaletxera jo dezakete izena ematera. Ludotekaren erabilera debaldekoa izango da.

Berbalagun egitasmoan izena eman daiteke Zaldibarren

Euskaldun berriak eta euskaldun zaharrak eguenetan batzen dira, 15:00etan, euskaraz berba egiteko

ZALDIBAR • JONE GUENETXEA

TÚtik GURA. Ongi etorri Mintzalagunon Mundura kanpaina martxan ipini dute, euskaraz "lagun artean, modu eraginkorrean eta giro ezin hobean" aritzeko. Antolatzaileek azaldu dutenez, 22 herrialdeetako 7.000 lagunek baino gehiagok parte hartzen dute Mintzapraktika egitasmoetan. Zaldibarren kasuan, Berbalagun taldea egue-

22 herrialdeetako 7.000 lagunek baino gehiagok parte hartzen dute Mintzapraktiketan

netan batzen da, 15:00etan, ordu batean euskaraz berba egiteko. Izan ere, euskaraz berba egin ohi duten pertsonak eta euskaraz egin

Otsailaren 23ra arte dago apuntatzeko aukera. Hainbat bide dago izena emateko

gura dutenak elkartzen dituen programa da Berbalaguna, elkarregaz euskaraz aritu daitezen.

Berbalagunak astero daude hartu-emanen, elkarregaz esperientzia aberasgarriak bizitzeko. Komunitate hori sendotzeko, izenemate deialdia abiatu dute. Otsailaren 23ra arte dago apuntatzeko aukera. Hainbat bide dago izena emateko. Mezua bidali daiteke zaldibarkoberbalaguna@gmail.com helbidera, telefonoz deitu daiteke (688 72 29 89), eta Zaldibarko Udal Bulegora ere joan daiteke.



Berdeago, 2020tik 2050era

1997an, Kiotoko Protokoloarekin, efektu kutsakorrek gutxitzeko helburu zehatzak ezarri ziren. Helburuak betetzen jarraitzeko asmoz, 2007ko Nazio Batuen Klima Gailurrarekin 2012-2020 aldiari hasiera eman zitzaion. Horregatik, 20 bikoitza data esanguratsua da, eta hartutako konpromisoek protagonismoa izango dute Berdeago 2020 Jasangarritasun Azokaren zortzigarren edizioan.

2020. urtean Berdeagok ziklo bat itxiko du eta beste bat hasiko du; izan ere, Berdeago Jasangarritasunaren Europako Elkarre gisa eratu da. Elkarreak urtero hainbat ekintza-lerro izango ditu, besteak beste: Turinea, Turismo Jasangarriaren web ataria; eta Ingurubide, Hiri Iraunkorrerako Baliabide Zentroa.

Bestalde, azken hilabeteetan ohi-koak dira horrelako albisteak: “Hu-

rrango bost urteetan Eusko Jaur-laritzak 20 milioi euro inbertituko ditu klima aldaketara egokitzeko 40 proiektutan”, edo “Euskadiko Aztar-na Ekologikoa 4,32 hektarea globa-letakoa da biztanleko, 2001ean baino %7 txikiagoa”. Ildo beretik, Euskadik bere garaian Ingurumen Esparru Pro-grama 2020 sortu zuen, 2050erako Klima aldaketaren estrategiarekin eguneratu dena. Euskadiren inplika-zioa zuzena da eta Berdeagorena ere bai.

Urtero bezala, Landako Gunean bi zita izango ditugu. Batetik, urtarrilaren 30ean eta 31n, eta otsailaren 1ean eta 2an Berdeago Energy egingo da, energia eraginkortasunera eta ingurumen berrikuntzara bideratutako azoka. Bertan, sistema, ekimen eta azken berrikuntzak ezagutzeko aukera izango dugu, eta Garapen Iraunkorrerako Helburuei (GIH) garrantzi

berezia emango zaie. Bestetik, otsailaren 8an eta 9an, toki berean, Berdeago Nature egingo da, Kontsumo Arduratsuaren Azoka. Bertan, ingurumen iraunkortasuneko sektoreekin, hau da, elikadura ekologikoarekin eta 0 Km elikagaiekin, ongizatearekin, ekonomia zirkularrarekin, bertako garapenarekin, turismoarekin eta moda jasangarriarekin lotura daukaten profesionalak bilduko dira. Hiru asteburuak dohainik izango dira, denok azokaz gozatu eta bertako ekin-tzekin ikasteko aukera izan dezagun.

Euskadiren Azterna Ekologikoa 2019 txostenaren arabera, Euskadiko populazioaren kontsumoa biokapazitatea baino handiagoa da, eta energiaren kontsumoa Erkidegoko Azterna Ekologikoaren %50ekoa da. Horregatik, ezinbestekoa da bizitzeko beste modu batzuen bila lanean jarraitzea, eredu berdeago baten bila.

Autobideko panelak aldatu dituzte Berrizen, herriko kutsadura akustikoa gutxitzeko asmoz

Bizi kalitatea hobetzeko asmoz, zarata mapa egin dute; orain, ekintza plan bat jorratu eta kutsadura puntuak hobetuko dituzte



Bizkaiko Foru Aldundiak 850.000 euro inbertitu ditu panelak aldatzeko.

BERRIZ • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Herriko bizi kalitatea hobetzeko asmoz, Berrizko Udalak zarata mapa egin du enpresa espezializatu baten bitartez. Azken osoko bilku-

ran Orlan Isoird Berrizko alkateak jakitera eman zuenez, herriko industrialdeetako eta hiriguneko kutsadura akustikoa nolakoa den jakiteko egin dute mapa.

Behin mapa esku artean izanda, Berrizko Udalaren asmoa ekin-tza plan bat jorratu eta kutsadura puntuak hobetzen joatea dela esan zuen alkateak.

Josu Albizuri EH Bilduren bozeramaileak adierazi zuen eurak "beti" egon direla zarata maparen alde. "Hala ere, gure ustez, zarata mapa hau zaharkituta jaio da. Ez

dira kontuan hartu Learreta eta Abeletzeko lanak, eta lan horiek jasota egon beharko liratekeela deritzogu. Beraz, hasi orduko berriztu egin behar den zarata mapa bat daukagu", kritikatu zuen Albizurik.

EH Bilduko zinegotziari erantzunez, Isoirdek "mapa bizia" dela eta kale neurketen bitartez mapa eguneratzen joango direla azaldu zuen.

Lehenengo neurria, hartuta

Berrizko Udalak neurriak hartuko ditu kutsadura akustiko hori gutxitzeko. Alkateak kazetariei jakitera eman zienez, dagoeneko hartu dute lehenengo neurria. "A8an ku-

Zarata mapa "zaharkituta" jaio dela kritikatu zuen EH Bilduko Josu Albizurik

tsadura akustiko handia dago eta errepide ondoan dauden panelak aldatzeko eskatu genion Bizkaiko Foru Aldundiari", adierazi zuen Isoirdek. Aldundiak 850.000 euro inbertitu ditu lan horiek egiteko.

Neurri hau Berrizko Udalak hartzen duen lehenengoa dela esan zuen alkateak.

Santa Ageda koplak abesten irtengo dute lurretan, usadioari hutsik egin barik

Aita San Migel plazan elkartuko dira, otsailaren 4an

IURRETA • AITZIBER BASAURI

Makilak eskuan hartuta, Santa Ageda koplak abestera irtengo dute, otsailaren 4an, Iurretan. Iurretarrak tradizioari eusten diote oraindino, eta kalerik kale ibiliko dira koplak abestu eta etxeko jaun-andreei diru apur bat eskatzen. Aita San Migel plazan

ipini dute hitzordua, Santa Ageda bezperan, 16:15ean.

Azken urteetan lez, 30 bat lagun batuko dira kaleko bazterrek berotzeko asmoz, eta hainbat gunetan egingo dituzte geldialdiak. Batutako dirua pentsiodunei emango diete.



Hainbat iurretarrak batzen dira, urtero, Santa Ageda koplak abesteko.

Abadiño gertu dago Bizkaiko baserri azokarik garrantzitsuenetarikoa hartzeko

Euskal Herri osoko baserritar eta artisauek hitzordua dute astelehenean egingo den San Blas azokan. Aurten ere jendez lepo beteko dira Zelaietako kaleak



71 bat ekoizlek baserriko ortuariak salduko dituzte.

ABADIÑO • EKAITZ HERRERA

Zenbaki gutxi batzuek ondo era-kusten dute aurtengo San Blas eguneko azokak hartuko duen dimentsioa. 71 izango dira ortuko produktuak saltzera etorriko diren baserritarrak, 27 artisau ere etorriko dira, eta abeltzainek 200

bat abere batuko dituzte guztira. Gainera, hori guztia eszenatoki eraberritu batean egingo dute. Udalak 2019ko udaberri inguruan hasi zituen Ferialekua eraberritzeko lanak. Lanak guztiz amaitu barik dauden arren, azokako azpiegitura hartzeko prest egongo da herria.

Gainerakoan, sagardo eta talo giroa Ferialekuan bertan ipiniko den elkartasun karpan, lonjan eta gaztetxean ere nagusituko da. Bestalde, idi probak San Blas egunetik otsailaren 10era arte egongo dira ikusgai, probalekuan.

Azoka "pirata" aurten ere

Abadiñoko gaztetxeak eta Eixu Artisau Elkartek azoka "alternatiboa" egingo dute aurten ere. Askotariko artisau sortzaileek denerik izango

Sagardo giroa elkartasun karpan, elkartasun lonjan eta gaztetxean ere nagusituko da

dute salgai: bitxiak, arropak, inpresio artistikoak, ukenduak, garagar-doa, eztia eta ogia, besteak beste. Azoka "pirata" aurten ere, Zeletabe plazan egingo dute.

Elorrioko Metal Smelting enpresan greban daude lau langile finkoren kaleratzeak salatzeko

ELA sindikatuak jakitera eman duenez, Elorrioko galdategiko langileek otsailaren 3an eta 4an ere greba egingo dute

ELORRIO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

ELA sindikatuak ohar baten bidez jakitera eman duenez, orain aste bi lau langile finko kaleratu zituzten Elorrioko Metal Smelting enpresan, eta horien ordez hiru langile kontratatu zituzten aldi baterako laneko enpresetatik. "Enpresak lanpostu finkoak suntsitzen dabilta eta hori onartezina da", adierazi du ELA sindikatuko arduraduna den Ibai Cabrerok. Beraz, kaleratze horiek salatzeko, langileak berriro onar-

Kaleratzeak salatzeko, langileak berronartzeko eta lanpostu finkoen alde egiteko, greba egingo dute

tzeko eta lanpostu finkoen alde egiteko, greba egunetara deitu dute. Atzo egin zuten lehenengo greba eguna, gaur ere greban daude, eta otsailaren 3an eta 4an ere greba egingo dute.



Astelehenean Elorrioko Metal Smelting galdategiko langileek elkarretaratzea egin zuten udaletxearen aurrean.

Katalamixonek aisialdirako lehenengo saioaren balorazio positiboa egin du, eta bigarrena egitea du orain helburu

Gazteek egindako proposamenak kontuan hartuko dituzte hurrengo saioak antolatzeko

MAÑARIA • J.D.

Katalamixon aisialdi taldeak 10etik 16 urtera artekoen aisialdi eskaintza berria abiatu zuen joan zen asteburuan, Mañarian. Hainbat gazte batu zen plazan, eta askotariko herri kirol probak egin zituzten. Gazteak pozik ibili zirela-eta, Katalamixonekoek lehenengo ekimenaren balorazio positiboa egin dute.

Hilean behin eskainiko dute aisialdi eskaintza, eta hurrengo saioa otsailaren 22an izango da. Ekimen ugari antolatuko dituzte.

Lehenengoa herri kirolen ingurukoa izan da, baina hurrengorako beste gai bat pentsatuko dute. Illo horretatik, umeei hainbat

proposamen egin dituztela-eta, ekimenak antolatzerako orduan aintzat hartuko dituztela esan dute aisialdi taldekoek.



Mañariko gazteak plazan, aisialdi eskaintza berriko lehenengo saioan.

Jubilatuen lokaleko argiteria berrizten hasi dira asteon Izurtzan

IZURTZA • J.D.

Izurtzako jubilatuen lokaleko argiteria sistema berrizteko lanak hasi dituzte aste honetan. "Azpiegitura zaharkituta zegoen eta berritzeko beharra zuen", adierazi du lanen inguruan Lorea Muñoz alkateak.

3.100 euroko inbertsioagaz, kable sarea, entxufeak eta argiteria sistema osatzen duten bestelako osagai guztiak aldatuko dituzte. Aste honetan ekin diete lanei, eta hurrengo astean zehar amaituta egotea itxaroten dute udal ordezkariak. Oraingoa ez da jubilatuen lokalean inbertitzen duten

lehenengo aldia. Iaz, lokalaren fatxadako leihoak aldatu zituzten, beroak ihes egiten zuelako. Beira lodiagoko leihoak ipinita konpondu zuen arazo hori udalak. Era be-

3.100 eurogaz, kable sarea, entxufeak eta beste hainbat elementu aldatuko dituzte

rean, aldaketa horregaz epe luzera dirua aurreztuko dutela uste dute, energiaren faktura baxuagoa delako harrezkero.

**KURUTZIAGA
IKASTOLA**
BIZITZEKO HEZI

MATRIKULAZIO EPEA ZABALIK
(urtarrilaren 27tik otsailaren 7ra)

**Ikaslea ardatz
Euskara eta euskal kultura
Eleaniztasuna
Berdintasuna
Aniztasuna
Natura**

BISITA GIDATUAK NOIZNAHI

Tel. 946200822 / idazkaritza@kurutziagaikastola.eus

www.kurutziagaikastola.eus



**KURUTZIAGA
IKASTOLA**
BIZITZEKO HEZI

Zornotzako Udalak diru-laguntzak emango ditu beharrian ekonomikoa duten herritarrak enplegura gerturatzeko

Egoitza Zornotzan duen enpresaren batek herriko langaberen bat kontratatu, edo kontratatutako bati lanaldia handitzen badio, enpresak diru-laguntza jaso dezake udalaren partetik. Eskariak egiteko epea abenduaren 9ra arte izango da



Egoitza Zornotzan duten enpresa eta ekintzaileek eskatu dezakete diru-laguntza.

ZORNOTZA • EKAITZ HERRERA

Bizi- eta lan-baldintza eskasak dituzten herritarren egoera hobetzeko asmoz, Zornotzako Udalak enplegua sortzeko diru-laguntzak martxan ipini ditu. Herrian egoitza

duten enpresentzako deialdia da nagusiki. Hau da, Zornotzan egoitza duen enpresaren batek herriko langaberen bat kontratatzen badu, 4.000 eurorainoko diru-laguntza eskuratu dezake udalaren partetik.

Gainera, diru-laguntza hori 5.000 euroraino heldu daiteke baldin eta kontratatutako langileak Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta jasotzen badu (RGI lez ere ezaguna dena). Zornotzako Udalaren esa-

netan, "kolektibo zaurgarrietara" ailegatu gura dute.

Bestalde, enpresak aldeaz aurretik kontratatuta duen langile baten jarduna %50 handitzen badu, 4.000 euro jaso ditzake. "Helburua

lanbako enpresaren kontratazioa sustatzea da, aldi baterako kontratuak mugabako bihurtzea, lanaldia gutxienez %50ean handitzea eta langabezia dauden ekintzaileentzako bultzatzea", azaldu dute ohar batean.

Baita ekintzaileentzat ere

Diru-laguntzak ez dira enpresetara bakarrik mugatuko. Baten batek Zornotzan negozio berriren bat zabalduko balu, 4.000 eurorainoko diru-laguntza eskatu dezake. Kasu honetan, emandako laguntza gi-

Kasuaren arabera, Zornotzako Udalak 4.000 edo 5.000 eurorainoko diru-laguntzak eskainiko ditu

zarte segurantzarako edo material teknikoan inbertitzeko baliatu beharko da.

Diru-laguntzak eskatzeko oinarriko baldintza batzuk jakinarazi ditu udalak. Kontratatzen diren langile zein ekintzaileak Zornotzan egon beharko dira erroldatuta, gutxienez bost urtean etenik barik, edo hamar urtean etenekin. Eskariak aurkezteko epea abenduaren 9ra arte dago zabalik. Udal erregistroan aurkeztu behar dira.

Eskulan tailerra Atxondon, herriko gazteen eskariz

Haur Hezkuntzako txanda martitzen arratsaldetan izaten da, eta Lehen Hezkuntzakoena barikuetan

ATXONDO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Herriko gazteen eskariz, Mari-xurrike aisialdi taldeak eskulan tailerra eskaintzen du Atxondon. "Herriko umeez hainbat bider eskatu digute ludotekan eskulan tailerrak emateko. Gaiari buruz gogoeta egin genuen eta tailerra eskaintzea erabaki genuen", adierazi du Arantza Rodriguez Mari-xurrikeko kideak.

Egun, 21 umek parte hartzen dute tailerrean, baina herriko gaz-

te guztiei zabalik dagoela jakitera eman dute Mari-xurrikeko kideek. Martitzenetan, 16:30etik 17:30era Haur Hezkuntzako gazteen txanda izaten da. Barikuetan, oster, Lehen Hezkuntzakoena. Izena eman gura dutenak gura dutenean apuntatu daitezkeela azaldu dute aisialdi taldeko kideek. Familiek bost euro ordaintzen dute hileko umeez tailerrean parte hartzearen. Dirua materiala erosteko erabiltzen dute.

Emakumeak euskal dantzetan jokatu duen paperaz berba egingo dute Mallabian

Oier Araolaza antropologo eta dantzari eibartarrak berbaldia eskainiko du bariku honetan bertan. Kontzejuzarrean egingo dute berbaldia, eta 18:30ean hasiko da

MALLABIA • EKAITZ HERRERA

Emakumeak euskal dantzan: gezur baten historia izenburupean, Oier Araolaza antropologo eta dantzari eibartarrak berbaldia eskainiko du Mallabian. Kontzejuzarrean izango da, gaur bertan, 18:30ean. Emakumeak buruz euskal dantzen gaian esandako gezurrak zerrendatuko dituzte berbaldian. Araolazaren esanetan, emakumeak euskal dantzetan aritu ez direla dioen esana XX. mendera arte aile-

Emakumeak euskal dantzetan aritu ez direla dioen esana mito bat da, Araolazaren esanetan

gatu den mito bat da. "XX. mende hasieran aldaketa batzuk gertatu ziren genero ikuspegian, gizartean oro har, genero sistema ulertzeko moduan. Binarismora jotzen duten

ikuspegiak asko bultzatu ziren. Gizon eta emakumeak biologiko-ki oinarrituta, guztiz bereizten dituzten ikuspegiak nabarmenduko ziren", dio Araolazak. Hortik, "desberdintasuna jerarkizatze eta bata bestea baino hobea dela esateko" joera etorri zela gaineratu du Araolazak.

Berbaldia Mallabiko Gazte Alai dantza taldeak eta Nahikari emakumeen elkarteak antolatu dute, elkarlanean.

Estetika gida
anboto

NUKLEO
ileapaindegia
946 582 996
Nizeto Urkizu, 14 behea
ELORRIO
Ile-apaindegia

Ile-apaindegia
IUNIK
ILEAPAINDEGIA
Antso Estegiz, 1
DURANGO
Tel.: 946 216 491

berdeago energy

Eraginkortasun energetiko eta
ingurumen berrikuntzaren azoka

01 / 30 - 02 / 02

Urtarrilaren 30etik otsailaren 2ra

Sarrera dohainik
Landako Gunea, Durango
www.berdeago.com

antolatzailea | organizador



babestek | patrocinadores





Abesbatzako abeslarietarikoa bat Izaro Andres izan zen.

Hareek denporak!

JASOKUNDE ABESBATZA 'OH HAPPY DAY' SAIOAN

2010eko apirilean, Mallabiko Jasokunde abesbatza ETBko 'Oh Happy Day' saioko finalera heldu zen. Mallabiko gazteek urtarrean zapaldu zuten lehenengo zuzeneko programako plotoa. Hasierako faseak gainditu eta gero, apirilaren 24ko finalera heltzea lortu zuten. Astigarraga eta Eibar izan zituzten aurkari. Taldeak ikusmin handia piztu zuten, bai Mallabian, baita Durangalde osoan ere. Finala iraba-

zi ez arren, gogotik ospatu zuten Mallabian. Frontoian ipinitako pantaila erraldoiaren bitartez, herritarrek zuzenean ikusi zuten emanaldia. Telebistako saiotik zuzeneko konexioak egin zituzten finalaren gauean. Afaritan, 400 bat lagun batu ziren. Txapelketa amaitu eta gero, abesbatzako kideak 01:30ean heldu ziren herrian antolatutako jaira. Parte-hartzaileen artean Izaro Andres egon zen. J.G.

Lau hankako mahaia

Neskutz
Rodríguez
Herriaren Eskubidea



Enpatia, pazientzia eta borroka!

Joan zen asteen aspaldiko lagun batekin geratu nintzen Durangoko taberna baten, eta galdera hau bota zidan: zelan gobernuan?

Ez da erantzun erraza. Baditu alde onak, baina, nire ustez, badauka alde oso negatiboa eta askotan frustrazioa sortarazten diguna: burokrazia.

Norberak bere bizitza pertsonalean sufritu izan ditu burokraziaren atzaparrak edozein erakunde publikora jo duenean. Eta Gobernuan egonda ere ezin dio munstro horri ihes egin.

Edozein neurri martxan jartzeko, hainbat lege eta araudi kontuan izan behar ditu, plenoaren onespina, eta gero audientzia publikoan jarri. Beraz, neurri bat abian jartzeko, batez beste hilabete igaro behar du. Hori, udaleko eskumenei buruz soilik berba eginez gero. Beste erakunde batzuek parte hartu behar badute... akabo! Hor sortzen dira benetako oztopoak: eurentzat ez direlako lehentasunak, euren interesei kontra egiten dielako, edota bidean galtzen direlako.

Baina, zorionez, badaude burokraziari aurre egiteko osagaiak: enpatia, pazientzia eta borroka.

Azken 40 urteotan, durangarrok erakutsi dugu badugula aldaketa egia bihurtzeko pazientzia, eskubideak defendatzeko borrokarako arima eta besteei enpatia.

Enpatia elkarrekin lan egiteko. Enpatia besteen oinetan jartzeko eta lehentasun orokorrak norberaren interesen aurretik jartzeko.

Horregatik, eskerrak eman nahi dizkizuegu enpatia, pazientzia eta, batez ere, elkarlanean egiteko borrokarako go-go helarazi diguzuen guztioi!

Durangaldea asteen

Seme-alabak izan edo adoptazeagatik, 400 euroko diru-laguntza Zornotzan

Zornotza | Zornotzako Udalak 400 euroko diru-laguntza eskainiko du 2019ko urriaren 1etik 2020ko azaroaren 30era bitartean jaiotako edo adoptatutako seme-alabengatik.

Diru-laguntza hauen bitartez, "ugalkortasun politikei" lagundu eta lana eta familia "bateragarri" egiteko politikei erantzun gura diete. Familiek Zornotzako dendetan gastatu beharko dute diru-laguntza, umeentzako arropak, umeentzako tresnak, elikadura-produktuak, higiene-produktuak eta halakoak erosita.



Oscar Crespo iurretarrak irabazi du JAED elkarteak zozkatzen duen autoa

Iurreteta | Renault Gaursak JAED elkarteari dohaintzan emandako autoa Oscar Crespo iurretarrari egokitu zaio. Joan zen domekan jaso zituen giltzak, Jose Carrera elkartearen eskutik. "19-20 bat urteko autoa darabilt. Auto zaharra berri honegaz aldatuko dut", azaldu zuen Crespok autoa banatzeko ekitaldian.

Renault Gaursako Asier Valier salmenta arduraduna ere izan zen haiekin.



Lourdes Villanueva eta Palillos de Oro jatetxea saritu dituzte Zornotzan

Zornotza | Herriko merkataritza sustatzeko asmoz, Zornotzako Sabadell Bankuak Creemos en Amorebieta kanpaina martxan ipini zuen azaroan. Eguaztenean sari banaketa egin zuten eta Lourdes Villanueva herritarra eta Palillos de Oro jatetxea izan ziren sarituak. Villanuevak 3.000 euroko saria jaso zuen zozketan parte hartzearen, eta Palillos de Oro jatetxeak 2.000 eurokoa sari banaketara atxikitzearen.

Antolatzaileek jakitera eman dutenez, 1.057 herritarrek eta 102 komertzioek parte hartu dute kanpainen. Horrez gainera, kanpainen parte hartu duten herritar guztiei ekopeltsa bana oparitu dietela azaldu dute antolatzaileek.

Zure iritzia, gutuna edo fotodenuntzia helarazteko helbideak:
Bixente Kapanaga 9, - IURRETA • Izen-abizenak • telefonoa • helbidea
• Nortasun Agiriaren zenbakia **DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK**
ARGITARATUKO Alderdi, elkarte edo taldeko iritzia kide baten izenean sinatuta eta ANBOTOn irizpideen arabera zuzenduta publikatuko dira. Bidalitako testuak ezingo du 1.500 karaktere baino gehiago izan (tarteak barne).

**Seguros
Bilbao**

RUEDA BILBAO ASEGURUAK
Jabier Rueda


Landako etorbidea, 1 DURANGO
Tel.: 946 202 710 - Faxe: 946 816 577
jrueda@segurosbilbao.com




Herriko gudarien kalea, 10 behea - DURANGO - Tel./Faxe: 946 215 404

itzala

"Ilbeltzeko hotzak leizera daramatza hartzak" dio esaera zaharrak, eta hartz honek ere bide hori bera hartu duela dirudi. Aurki ezazu bere itzal ona, alboko zortzi hauen artean.



Hara!



Bai bitxia gure hizkuntza. Hiru elementu hauek izen bera dute, aizu! **Zer dira?** Ipini hemen.

Lauki bakoitzeko hizki bana idatzi behar duzu. Hemen pista batzuk, lagungarri:


- Azkena, bat baino gehiago direla adierazteko da.
- Lehen hizkia ez dugu normalki ahoskatzen.
- Bigarrena eta seigarrena bokalak dira eta berdinak dira.
- Laugarrena bokala da, baina ez da bigarren eta seigarren laukikoa bezalakoa, ezta O, edo E ere.
- Bosgarrena sudurkaria da. Ez da Ñ, baina ia-ia.
- Hirugarrena, "gu" hitzan aurkituko duzu.

ETA
NIK NOLA
JAKINGO DUT
HORI!!



NON da Faltsua?

TTIPI-TTAPAKo irakurle batek oso ondo esan zigun behin: Elur malutak izotz-prismez osatuta daude, eta ezberdinak diren arren, ezaugarri bat eta bera dute, hexagonoak dira, sei adar dituzte beti. Aurki itzazu izotz-prisma faltsua (zazpi adar dituen) eta izotz-prisma bikoiztua.



www.plazanbazan.eus
Egilea: Garbine Ubeda (Aizuri)

Sartu
www.plazanbazan.eus
web atarian eta
denbora-pasa hauen erantzunekin
batera beste hainbat
jolas aurkituko dituzu.



Bizitza eta noraeza

ANTZERKIA **ELORRIO :: Urtarrilak 31**

'Babesleku arrotzak eta animalia bakartien hotsak'

Noraeza, bizitza, bidaia, bakardadea... Kontzeptu horien inguruan ardazten den ikuskizuna eskainiko du, gaur, Rubik Theatrek Arriola antzokian. Antzerki-hizkuntza berrien esperimentazioan eta bilaketan sakonduz sorturiko ikuskizuna da *Babesleku arrotzak*

eta animalia bakartien hotsak ikuskizuna. Horretarako, mugimenduaren poetika eta antzerki bisuala landu dituzte Estitxu Zalduak eta Juanjo Herrero.

Istorio gurutzatuak aurkeztuko dituzte oholtza gainean. Ikuskizuna 20:30ean hasiko da.

Urtarrilaren 31n

ABADIÑO **san blas jaiak**

San Blas 2020 Pilota Txapelketa

18:30ean, Tornosolo trinketea.

Disko festa, 18:30ean, Elkartasun lonjan.

Garagardo dastaketa eta parrilada, 20:30ean, txosnagunean.

Bertso afaria: Maialen Lujanbio eta Unai Iturriaga, 21:00etan,

Gaztañodi elkartearen (txartelak salgai Petite liburu-dendan eta Abarketeruenean).

BERRIZ **dantza**

'Bizi dantza' (Pirritx, Porrotx eta Marimotots), 17:00etan, Kultur Etxean.

IURRETA **ipuin kontaketa**

'Maleta kontuak' Maider Galartzaren eskutik,

17:30ean, Ibarretxe kultur etxean (3-4 urtekoentzat, heldu batek lagunduta). Bigarren saioa, 18:00etan (5 urtetik gorakoentzat).

IURRETA **ipuin kontaketa**

'Las arenas del sueño' Virginia Imazen eta Karmelo Muñozen eskutik,

19:00etan, Ibarretxe kultur etxean. Helduentzako saioa.

MALLABIA **hitzaldia**

'Emakumea euskal dantzari: gezur baten historia', 18:30ean, Kontzejuzarrean. Hizlaria: Oier Araolaza.

ZORNOTZA **antzerkia**

'Oymyakon: habitación 101' (Khea Ziater), 20:15ean, Zornotza aretoa.

Otsailaren 1ean

ABADIÑO **san blas jaiak**

Herri bazkaria, 14:30ean, Elkartasun lonjan (tiketak salgai Abarketeruenean,

jubilatuaren tabernan eta Tipi-Tapan: langileek 12 euro, langabeek 10 euro eta umeek 5 euro). Gero, **Bingo musikala**.

Bertso triki poteoa: Igor Galarza eta Bittor Altube, 17:00etan.

Kontzertua: Alerta + Rukula + Dj "El Txef-a", 22:00etan, txosnagunean.

BERRIZ **antzerkia**

'Zaldi Urdina' (Artedrama, Axut! eta Dejabu), 20:00etan, Kultur Etxean.

Otsailaren 2an

ABADIÑO **san blas jaiak**

San Blas 2020 Pilota Txapelketa, 12:00etan, Tornosolo trinketea.

MAÑARIA **koplak**

Santa Ageda koplak, 08:30ean, plazan.

Otsailaren 3an

ABADIÑO **san blas jaiak**

Azoka: baserriko tresnak eta makinak, ganadua, fruta, ortuariak, gazta, txakolina, ogia, ezti, artisautza eta landareak. XXVIII. Abelburu Erakustaldia, goizean.

EHNEko jantokia, egun osoan zehar, txosnagunean.

Txistularien kalejira

Txanbolin taldeagaz, 09:00etan.

Meza nagusia, 11:00etan, San Trokaz elizan.

Beldur Barik gunea, 11:00etatik 13:00era, Txanporta plazan.

Bertsolariak: Txaber

Altube, Garikoitz

Sarriugarte eta Bittor

Altube, Ferialekuan.

Aurkezlea, Aitor Bizkarra.

Herri kirolak, 12:00etan, probalekuan:

Urrezko Aizkolariak txapelketako gizonen binakako norgehiagoka + Urrezko Aizkolariak txapelketako emakumeen binakako norgehiagoka + Urrezko Harri-jasotzaileak txapelketako ekitaldia harri handiekin.

DJ Alus, 14:00etan, Elkartasun lonjan.

DJ Bull, 16:00etan, Elkartasun lonjan.

Erromeria: Lotxo taldea, 17:00etan.

Idi probak, 18:00etan, probalekuan.

Otsailaren 4an

ABADIÑO **san blas jaiak**

Santa Ageda koplak, Abadiñoako Done Zezili abesbatzagaz, 19:00etan.

ZALDIBAR **santa ageda**

Santa Ageda koplak

Koral Abesbatzaren eskutik, 18:30ean, Zaldia plazatik irtenda. Deialdi irekia da.

ZORNOTZA **zinekluba**

'Culic: camino al más allá', 20:15ean, Zornotza Aretoa.

Otsailaren 6an

DURANGO **jardunaldia**

'Eskola ibilbideak,

txangoak... Ba al dakizu nola garraiatu

beharko luketen zure seme-alabek?'

18:00etan. Informazioa: prensapaisvasco@stopaccidentes.org

ZORNOTZA **musika**

'Enkarguz! sormenaren ibaian' (Xabier Zabala + Andoni Egaña), 20:15ean, Zornotza Aretoa.

Otsailaren 7an

DURANGO **musika**

Bertsio gaua, 20:00etan, Sorginolan.

DURANGO **musika**

Animales Muertos+ State Alerta+ Peligro 66, 22:00etan, Plateruenean.

ELORRIO **musika**

Telmo Trenor + Sua, 22:00etan, Ateneoan.

ZORNOTZA **antzerkia**

'Roman y Julieta'

(Borobil Teatro),

20:15ean, Zornotza Aretoa.

Zinema

:: Berriz

KULTUR ETXEA

• **La odisea de los Giles**

barikua 31: 22:00

domeka 2: 19:00

:: Durango ZUGAZA

• **Judy**

barikua 31: 19:30/22:00

zapatua 1: 19:30/22:30

domeka 2: 18:30/20:45

astelehena 3: 18:30/21:00

martitzena 4: 20:00

eguzatena 5: 20:00

• **Adu**

barikua 31: 19:30/22:00

zapatua 1: 18:00/20:15/22:30

domeka 2: 18:00/20:15

astelehena 3: 18:30/21:00

martitzena 4: 20:00

eguzatena 5: 20:00

• **Underwater**

barikua 31: 19:30/22:00

zapatua 1: 18:00/20:15/22:30

domeka 2: 18:00/20:15

astelehena 3: 18:30/21:00

martitzena 4: 20:00

eguzatena 5: 20:00

• **Las aventuras del Dr.**

Dolittle

zapatua 1: 17:00

domeka 2: 16:30

:: Elorrio ARRIOLA

• **Richard Jewell**

zapatua 1: 22:00

domeka 2: 20:00

astelehena 3: 20:00

• **La oveja Shaun:**

granjaguedon

domeka 2: 17:00

:: Zornotza ARETOA

• **Te quiero imbécil**

zapatua 1: 19:30/22:00

domeka 2: 20:00

astelehena 3: 20:15

• **Jumaji: siguiente nivel**

zapatua 1: 17:00

domeka 2: 17:00

ANBOTOkoko agendan ezer iragarri gura baduzu, idatzi **agenda@anboto.org** helbidera edo deitu **946 232 523** telefonora, eguazten eguerdia baino lehen.



IURRETA *Tellitu-n*

3 logelatako 6 etxebizitza

2 logelatako 11 etxebizitza

Garajea eta trastelekua barne

ZARATE ELEXPE
E R A G I L E A K

Tel.: 946 816 673
www.zarateyelexpe.com

“Entseguen %70 inprobisazioak izaten dira. Horrek bere alde ona ere badu, hortik ideia berri askok irteten dute eta”

The Van taldeak 'Grow' kaleratu du urtarrilean; taldekideak aldatu dituzte, baina seikotearen oinarria lehengo bera da: 70eko hamarkadako rocka



Iratxe Gaztañaga, Martzel Vargas, Alex Garcia, Eñaut Armentia, Iker Hernandez, eta Ingartzi Etxeandia (ez dago argazkian) dira The Van.

MUSIKA • ARITZ MALDONADO

Zornotzako maketa lehiaketa irabazi zutenetik, ibilbide gorabeheratsua izan du The Van taldeak; batez ere, taldekideen joan-etorriagatik. Orain, 'Grow' lehenengo disko luzea kaleratuta, gogotsu daude zuzenekoak eskaintzeko. Hasieratik dauden Alex Garciari, Martzel Vargasi eta Ingartzi Etxeandiari, Iker Hernandez, Eñaut Armentia eta Iratxe Gaztañaga batu zaizkie. Seiek osatzen dute The Van. Kontzertuak lotzeko lanetan dabiltza orain. Besteak beste, Gasteizen joko dute, apirilaren 24an, Rock Urban Concept aretoan.

Zelakoa izan da 'Grow' kaleratzeko prozesua?

Alex Garcia: Nahiko ibilbide gorabeheratsua izan da, lehiaketaren ondoren ia urtebeteko geldialdia egin genuen eta. Baina orain, apurka-apurka bada ere, bagabiltza berriro ere martxa hartzen.

Iratxe Gaztañaga: Ikasketak, lana, jendea kanpora... oso gatxa da denok batu eta martxa hartzea. Baina, orain, lortu dugulakoan gaude. Mentalitatea aldatu dugu eta aurrera egitea errazagoa egingo zaigulakoan gaude.

70eko hamarkadako rockarekiko duzuen lotura ez da aldatu.

A.G.: Esan beharra dut James Morgan ekoizleak ere asmatu egin duela soinu hori ateratzeko. Bazekien zein zen gure lehentasuna, eta lan handia egin du hori ateratzeko. Asko dago beretik disko honetan. Baina, bai, 70eko rock hori dago oinarrian.

Bestalde, denok egiten ditugu ekarpenak abestietan edo konponketetan.

Zein leku du inprobisazioak zuen entseguetan?

A.G.: Monotonía ez dugu gustuko. Entseguen %70 inprobisazioa dira. Inprobisatzen hasten gara, eta, askotan, ez dugu entseatzeko benetan entseatu behar duguna (barrez). Ho-

“**James Morgan ekoizleak bazekien zein zen gure lehentasuna soinuari dagokionez, eta asmatu egin du**”

rrek bere alde ona ere badu, hortik ideia berri askok irteten dute eta.

Gero, denon artean lantzen ditugu ideia horiek.

Eñaut Armentia: Ni udan sartu naiz taldean, grabazio amaieran. Grabazioan ez dago baxurik, teklatuagaz egindakoak soilik. Hortaz, baxuaren lerroak ateratzeaz gainera, nire ukitua ematen ahalegindu naiz, eta hori beste prozesu bat da.

Beraz, pozik zaudete diskoagaz?

I.G.: Diskoa eurek aurretik izan duten garapenaren emaitza dela esango nuke. Elkarregaz jo duten dena, ikasi duten dena, islatzen du. Izan duten momentu hori gordetzea erabaki zuten. Gero, gainerakook sartu garenetik, abesti berriak sortu ditugu, eta talde berriaren esentzia horrek harrapatuko du.

A.S.: Bai, argi dago diskoak gure lehenengo etapa markatzen duela. Nire ustez, diskoek etapak errepresentatzen dituzte, eta honek gure lehenengo abestiak eta etapa biltzen ditu.

Talde guztien moduan, bertsoak egiten hasi ginen. Hiruzpau urtean horrela egin genuen, Monckday izenagaz. Abesti propioak egiteko sasoia zela pentsatu genuen, eta, aldi berean, lokalean grabatzeko aukera eskaini ziguten. Horrek Zornotzako maketa lehia-

ketaren sasoiagaz kointziditu zuen. Aukera ona zela ikusi genuen.

I.G.: Hortik dator diskoaren izenburua ere. *Grow*gaz (ingelesez hazi esan gura du, besteak beste) hori islatu gura izan dugu, haztearen metafora.

Etapak amaitu duzue, beraz. Zer ekarriko du etapa berriak?

A.G.: Ez dugu espektatibarik egin. Diskoa oraintxe atera dugu eta ez dakigu zer gertatuko den.

I.G.: Hemendik aurrera, ahalik eta gehien jo gura dugu, eta abesti berriak sortu, kide berriok ere badugulako zer esana.

E.A.: Ikerrek, adibidez, bere ekarpena egin gura du, diskoko kolpeak jangitx taldekide ohiak prestaturi-

moduan, gogotsu gaude abesti berriak sortzeko, egun The Van dena islatzeko.

A.G.: Beti jo izan dugu gustuko dugun musika, eta taldean inor ere ez da ibili beste zerbaiten bila. Alde horretik, zortedunak izan gara. Beti izan gara fidelak gure estiloari. **Revival moduko bat gertatzen dabil 70eko musikagaz? Gure inguruan ez dira ohiko doinuak.**

A.G.: Hemen entzun entzuten da 70eko musika, baina estilo hau ez da ohikoena. Ez dugu esparru zehatz batean zentratu gura eta ez diegu aterik ixten doinu super klasikoei. Baten batek zerbait modernoagoa proposatzen badu, probatu egiten dugu.

I.G.: Nazioartean talde ugari daude gure sokakoak, baina, egia esan, hemen inguruan ez da asko sakondu doinu hauetan. Alde batetik, hori ona da, beharbada publikoak ez duelako ezagutzen, baina, beste alde batetik, ezjakite horrek jendea ez erakartzea ekarri lezake.

A.G.: Gazteak izan arren, beti azpimarratu izan digute gure arteko hartu-eman ona igartzen dela. Taldekide askok aspalditik ezagutzen dugu elkar, eta konexio ona dugu.

“**Nazioartean talde ugari daude gure sokakoak, baina, egia esan, hemen inguruan ez da asko sakondu doinu hauetan**”

koak direlako, eta Ikerren estiloa beste era batekoa da. Esandako

Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoak eta 'Zaldi Urdina' antzezlanak izango dira asteburuan Berrizen

Kultur Etxeak urtariletik maiatzera bitarte antolatutako kultur aroaren parte dira emankizunak. Pailazo hirukoteak 'Bizi dantza' lan berria aurkeztuko du gaur, barikua, Berrizko frontoian. 'Zaldi Urdina' antzezlanak bihar eskainiko dute

BERRIZ • IGOR GALARZA

San Antonio jaiekin batera, kultur aro anitzari ekin diote aurten Berrizen. Urteurrenaren 16an hasi eta maiatz amaierara arte, musika, dantza, antzerkia eta bestelako kultur ikuskizunak eskainiko dituzte Berrizko Kultur Etxean. Gaur, urtarilak 31, berriztarrek bisita berezia izango dute: Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoak Euskal Herrian aurkeztzen dabiltzan *Bizi dantza* ikuskizuna eskainiko dute. Ahalik eta jenderik gehienak ikusteko asmoz, herriko frontoian egingo dute ikuskizuna, 17:00etan. Biher, ostera, 2020ko kultur aroak Kultur Etxean izango du zita. *Zaldi Urdina* antzezlanak egongo da ikusgai, 20:00etan.

Artista ugari igaroko dira Berrizko Kultur Etxetik, baita berriztarrak direnak ere. Alde batetik, otsailaren 29an, Txintxaun antzerki taldeak *Imbebible* lan berria aurkeztuko du. Komedia antzerki horretan protagonistak diren pertsonaia biek historian zehar

gertatu den berririk onena iragarriko dute. Beste aldetik, Miren Amuriza sortzaileak *Gorria* lana plazaratuko du Asko Etxebarrieta dantzariagaz batera, martxoaren 28an. Bertsolariaren eta flamenko

dantzariaren arteko elkarriketa artistikoa egingo dute oholtza gainean, gitarra eta perkusio soinuak laguntzagaz. Baina Euskal Herriko kanpoko artistak ere izango dira Berrizen. Besteak beste, Ameriketa-

ko Estatu Batuetako Kelly Finnigan & The Atonemets taldea etorriko da kontzertua eskaintzera. Pauline eta Juliette musikariek emango diote amaiera kultur aroari, maiatzaren 23an.



Gaur izango da Pirritx, Porrotx eta Marimototsen ikuskizuna.

Geure Durangaldea

Libe Mimenza Castillo
Kazetaria



Hirugarren denboraldia

Hasi orduko spoiler bat: engantxatuko zara! Zure mugikorra hartu —oraintxe bertan esku artean duzula aprobe txatu— eta aplikazio bat deskargatu —edo urte amaieran desinstalatu ez zenuela konprobatu—. *Egunean Behin* du izena. Hirugarren denboraldia datorren astelehenean abiatuko da, otsailaren 3an. Prest al zaude?

Jolasaren formula: egunero partida bat (bakarra), eta zenbat eta azkarrago asmatu, hobeto. Astelehenetik ostiralera, hamar galdera egun bakoitzean. Asko jota, bizpahiru minutuko gozamenak.

Jokoaren arauak: dibertsio hutsalaz gain, zer edo zer ikasteko ere balio digun ariketa. Banaka jokatzeko dena, eta taldean parteka daitekeena (etxekoa, lagunena, lankideena, herrikoa... zenbat taldetan zaude?). Birtualean aritzen gara, baina ahoz aho ere aipatzen dugu, eta aurrez aurre egin zuten azken denboraldiako finala. Erabat inklusiboa da, gainera; baldintza bakarra: hizkuntza ezagutza.

Olgeta baino gehiago den app bat: gure mugikorraren pantaila erdaldunetan egunero euskarari irekitako leihoa, eta baita ia beste inon existitzen ez den Euskal Herri baten gorpuztea bistaratu eta biziartzaren duena. Beste era batera esanda, hizkuntza normalkuntzarako eta kultur transmisiorako aplikazioa.

Baina... zenbat gara? 60.000 lagun bai gutxienez. Gutxi? Asko? San Mameseko aforoa + beste 10.000 lagun, oraingoz. Eta... zenbat izango gara? Gutako bakoitzak beste pare bat lagun botaz gero jolaserako erronka... atera kontuak! Egunean behin... festa ederra!



Plazan egurrezko estaldura bat jarriko dute, besteak beste.

Urrike liburu-dendak kontakizun laburren lehiaketa berria antolatu du

Lanak aurkezteko epea martxoaren 15ean amaitzen da; saria 300 eurokoa izango da

LITERATURA • A.M.

Beste urte batez, Urrike liburu-dendak kontakizun laburren lehiaketa antolatu du. Lumamaia editorialagaz elkarlanean antolatu du Urrikek lehiaketa. Parte hartu gura dutenek martxoaren 15era arte dute epea euren kontakizunak bidaltzeko; kontakizunak aurretik argitaratubakoak izan behar du-

te, eta 3.000 berbako luzera izan behar dute, gehienez. Horrez gainera, 'aterki horia' adierazpena jaso behar dute. "Zuk ere zer kontatu baduzu, idazteko eta irakurria izateko gogoz bazabiltza, animatu", adierazi dute antolatzaileek.

Saria 300 eurokoa da. Obra irabazlea eta finalista publikatu egingo dira.

CERAMICAS MACOBER

**ZERAMIKA ETA GRESA
DEKORAZIOA ETA APAINKETA
ERAIKUNTZAKO MATERIALA**

1300 m² BILTEGI - 800 m² ERAKUSKETA *Storri eta ikusi*

Eitua indust., 65 BERRIZ - Tel.: 946 827 890 www.macober.com

uxarte
SAGARDA OGINTZA

Montorra, 6 ZORNOTZA - Tel.: 946 308 815
www.uxarte.com

**ZABALIK
OSTIRALETAN ETA
ASTEBURUETAN**

**ASTEAN ZEHAR
ENKARGUZ**
Gutxienez 15
lagunekoko taldeentzako

Urrike Liburudenda

Kalebarria z/g - Durango
Tel.: 946 201 893
Faxa: 946 816 403



Unai Ormaetxea
Zenikazelaia
Irakaslea eta
sortzailea
Zornotza | 1974

“Bizi-ikuspegi bat islatu gura izan dugu liburuan; mendia versus bizitza, balioetan sakonduz”

Unai Ormaetxeak 'Mundu bat motxilan. Alex Txikonen menditazioak' liburua kaleratu du, Sua argitaletxeagaz. Mendigoizale eubarraren kirol bizitzatik haratago joanda, bizitza ikuspegi bat islatu gura izan du, bere ertz guztiekin

DURANGO • JOSEBA DERTEANO

Liburua orain 15 urte egindako iradokizun baten emaitza dela aipatu izan duzu.

Hori da. 2004an Juanito Oiarzabal K2 mendian galdu eta mendigoizale batzuek lagundu ziotenean, Alex Txikon tartean zegoen. Alex laguna dut, eta, espediziotik bueltan, zerbait egin zitekeela proposatu zidan. Urte batzuk lehenago Jon Sarasuak eta Andoni Egañak ateratako *Zozoak Beleari* saiakera eredu moduan hartuta, Alexegaz antzerako zerbait egin nezakeela pentsatu nuen, nik berari gutunak idatziz eta berak niri erantzunez. Azkenean, ideia hor geratu zen. Baina betidanik izan dut buruan. Harrezkero, hiru liburu kaleratu ditut, eta, etapa hori amaitu dudanean, Alexena au-

rrera eramateko sasoi egokia dela iruditu zait.

Gertaera batzuen kontakizuna baino gehiago da liburua.

Everesterako igoera saiakera baliagarria da liburuari egitura edo ordena bat emateko, baina liburua ez da espedizioaren kontakizun bat edo Alexen biografia huts bat. Informazio hori badago interneten. Badaude datu biografikoak, baina

“

Liburua ez da biografia bat edo espedizioaren kontakizun huts bat. Informazio hori badago interneten”

■

bizi-ikuspegi bat islatu gura izan dugu: mendia versus bizitza, balioetan sakonduz. Menditik abiatuta, eguneroko bizitzan edonorentzat lagungarri edo eredugarri izan daitekeen zerbait sortzen ahalegindu gara. Nik beti diot mendiaren modukoa izan gura nukeela, beti aldakorra eta beti bera. Neguan joan edo udan joan desberdina da, baina ikuspuntu pertsonal batetik badago mantentzen den esentzia bat, eta esentzia hori balioetan islatu gura izan dut, natura dela, berdintasuna dela...

Mendian, bizitzan lez, beti ez da helburua lortzen, beti ez dago gailurreraino allegatzerik. Dikotomia hori jaso duzu liburuan?

Bai. Alex Everest neguan eta oxigenorik barik igotzeko bigarren ahaleginean zebilela gorpuztu nuen liburua. Orduan ere ez zen gailurreraino heldu. Lortu izan balu, epikoa izango zen, baina ez lortzeak badu bere hausnarketa eta ikasgaia. Eta, hain zuzen, ideia horregaz borobiltzen dut liburua amaieran, *Urrezko 99 txanpon* izeneko ipuinaren bitartez, urrezko 99 txanpon izanagatik ehungarrenaren bila zoratu beharrean zebilen haren istorioagaz. Galtzailea ez da helburua lortzen ez duena, ahalegintzen ez dena baino. 'Bidean ikasitakoa eta zelan egin duzun bide hori, zer balio edo zutabetan eraiki duzun', horixe da mezua.

Alex Txikonen bizi-ikuspegia da ala zeuretik ere badu?

Neuretik du gehienbat, nik transmititu gura nuena transmititu dudanean. Baina Alex ados egon da idatzitako denagaz, eta oso pozik dago azken emaitzagaz.

Liburua ontzerako prozesuan, zela-koa izan da Alexegaz izandako hartumana?

Gatxena beragaz geratzea izan da, beti handik edo hemendik dabil eta. Ni aurretik joan naiz beti, baina banekien horrela izango zena. Baina ezagutzen dudanez, eta bere kirol ibilbidea publikoa denez, banekien nondik jo. Berari liburuko pasarteak bidalitakoan, oso idenfikatuta sentitu da idatzitakoagaz. "Nik idatzita dagoela dirudi", esan izan dit.

Narrazioa lehenengo pertsonan eta bakarrizketa estiloan idatzita dago. Zergatik hautu hori?

Liburuko protagonista bakarrak Alex bera eta bere motxila dira, horrek esan gura duen denagaz. *Motx* bere motxilaria berba egiten dio uneoro. Motxila gu gara, gutariko bakoitza. Ideia horrek liburuaren helburuak borobiltzen zituen, eta sinplea zen. Azkenean, guri berba egiten digu.

“

Protagonistak Alex eta 'Motx' bere motxila dira. Motxila gutariko bakoitza da, guri berba egiten digu”

■

Ilustrazioek zelako garrantzia dute liburuan?

Irudi aldetik, argi nuen *Printze txikia* ipuinaren estiloko zerbait gura nuela, baduelako zelanbaiteko lotura gure liburuan azpimarratzen diren balioekin. Cesar Llaguno da ilustratzailea. Martin Zabaletaren espedizio ospetsuaren harira, *Everest* izeneko komikian egindako lana asko gustatu zitzaidan. Proposatu genion eta pozik onartu zuen. Irudiek gura genuena transmititzen dute.

Nori dago zuzenduta liburua?

15 urtetik gorako edonori. Poz handia hartuko nuke Batxillergoan eta nerabazaroko adin konplikatu horretan daudenentzat irrika bat sortzeko baliagarria balitz. Edo mendiarekiko grina sortzeko edo liburuan jasotzen diren ikuskerak euren errealitatera eramateko baliagarria balitz, nork bere bizi-modura.

Liburua dela-eta, baduzue berbaldirik edo antzekorik antolatzeko asmorik?

Bai, ildo horretatik, ikus-entzunezkoak lantzen nabil; liburuaren inguruko bat eta Alexen ibilbidean gehiago zentratuko den beste bat. Bata bestearen osagarriak izango dira. Horiek ikastetxeetara zabaltzea gura nuke, ikastetxeetako material bihurtzeak ilusioa egingo lidake. Aukera sortzen denetan, berbaldi edo solasaldiak ere eman gura ditugu, jendeagaz aurrez aurre egoteko. Materiala apiril ingururako prest izan gura nuke.

Osasun gida

anboto

Ginekologia
PSE: 93/18

mam ginekologia zentroa

Mikeldi 13, 48200 - DURANGO
T 946 05 53 04
info@mamginekologiadurango.com
www.mamginekologiadurango.com

HITZORDUA ESKATU
674 322 360

Fisioterapia
PSE: 119/13

Zainduz

**FISIOTERAPIA
OSTEOPATIA**

Ane Legorburu Munitxa

Trañabarren 13, 4. blokea
behea eskuma
MATIENA-ABADIÑO

944 657 132 - 686 906 374

Fisioterapia
PSE: 57/16

pablo zubizarreta
fisioterapia & osteopatia

Muruetatorre, 2D
DURANGO

pzubizarreta@gmail.com
946 550 049 - 695 784 963

Optometria
PSE: 162/13

Naia Zabala Azumendi
11587 kol. zk.

keinu

- Optimetrian teknika aintzindariak
- Kontaktologia • Haurren ikusmena
- Ikusmen terapia • Erreflexu primitiboak
- Syntonic fototerapia • SENA estimulazio neuroauditiboa • Orto-k

Arkaz 3 • 48240 Berriz • Tel.: 94 622 50 99
www.keinuoportmetriazentroa.com

Podologia
PSE: 148/13

PAUSOZ PAUSO
Podologia klinika

Goiatz Murua
kol. zbk. 147
Ainhoa Elorza
kol. zbk. 238
Nerea Rodriguez
kol. zbk. 329

Kiropodia, onikopatia, alterazio dermatologikoak eta ibilerako alterazioak

Telefona: 946203630
Monago Torre 4, behea 48200 durango

Odontologia
PSE: 145/13

clínica dental hartzklinika
b. unamunzaga e. etxebarria

ODONTOLOGIA OROKORRA
INPLANTOLOGIA - KIRURGIA
ORTODONTZIA KONBENTZIONALA ETA
IKUSEZINA • ODONTOPEDIATRIA - PADI
HORTZ-ESTETIKA
HORTZ-ESKANERRA

{Muruetatorre, 2C blokea, behea} DURANGO
Tel.: 946 819 951 Mug.: 717 194 454
uecdental@gmail.com

Odontologia
PSE: 112/13

J.L. URRETA ZABALO
MEDIKU ESTOMATOLOGOA
IMQ, PADI (umeen hortz programa)
Ortodontzia

Zumalakarregi, 18 - 1. ezk.
48200 DURANGO
Tel.: 946 812 200

Estetika
PSE: 16/09

AGIRRE KLINIKA
MEDIKUNTZA ESTETIKOA

www.medicinaesteticaadurango.com

Laser berria:
Tatuajeak behin betiko kentzeko laserra

Obesitatea-zelulitisa, Laserra: depilazioa (prezio bereziak), barizeak... Adinaren kontrako tratamenduak: orbanak, botoxa...

Txatxiena, 6
48200 - DURANGO
Tel.: 946 810 387

Psikologia
PSE: 62/11

JON ARRUABARRENA
PSIKOLOGO KLINIKOA
PORTAERA TERAPIAN MASTERDUNA

- Antsietatea, estresa, fobiak
- Depresioa • Eskola arazoak

UMEAK - NAGUSIAK - BIKOTEA

Frantzisko Ibarra, 6 DURANGO
arruaba@gmail.com

Pedagogia
PSE: 63/63

UGATZ

UMEAREN GARAPENERAKO ZENTROA
Laguntza goiztiarra, psikomotrizitatea, fisioterapia, logopedia

Juan Olazaran, 1 behea
DURANGO
ugatz@hotmail.es
944 668 370 - 615 782 090



Profesionalik onenak zure zerbitzura!

Abadiño futbol taldeko jokalaria batek irain arrazistak jasan zituen joan zen domekan jokaturako partiduan

Erregional B mailako jokalaria Arrankudiagan jokaturako partiduan iraindu zuten, joan zen domekan

FUTBOL • M.Z. / J.G.

Komunikatu baten bitartez, bere jokalaria batek jasandako irain arrazistak salatu ditu Abadiño Futbol Taldeak. Irainak Abadiño Erregional B eta Escolapios taldeen arteko partiduan gertatu ziren, joan zen domekan, Arrankudiagan. "Partidua ikusten zegoen gizonetako batek taldeko jokalaria bat iraindu du, hainbat bider. Jokalariak erantzun egin dio eta epaileak zelaitik kanporatu du Abadiño jokalaria", azaldu zuen futbol klubak domeka gauean bertan kalera-tutako komunikatuan.

Abadiño Futbol Taldeak gogor gaitzetsi ditu horrelako jarrerak, eta horrelako egoerarik ez dutela onartuko azaldu dute. Gainera, taldeko koordinatzaileak ANBO-TOri jakitera eman dionez, ez da

lehenengo aldia taldeko jokalaria bat iraintzen dutena.

Udalen gaitzespena

Irain hauen aurrean, Abadiño Udalak "erabateko gaitzespena" adierazi du. "Babes osoa" eman die-

te, bai irainak jasotako jokalaria, bai "antzeko egoeraren bat jasan duten beste pertsona guztiei".

Arrankudiagako Udalak ere oharra kaleratu du gertatutakoa salatzeko. "Gertatutakoa aztertu, eta neurriak hartuko ditugu horrelako

eraso eta jarrerarik berriro gerta ez dadin", azaldu du Txutxi Ariznabarreta Arrankudiagako alkateak. Gaineratu duenez, eraso hauen aurrean hartuko dituzten neurrien berri emango diete herriko udal futbol zelaia erabiltzen duten taldeei.



Abadiño Erregional B mailako taldea.

Jokaldia

Alfontso Arroio Monasterio
Kazetaria



Azkenaren loria

"Irabazleak hazten eta hezten ari gara; galtzaileak sortu behar-ko genituzke. Garaileek galtzen ez dakite, eta, horren ondorioz, arazoak sortzen dira". Horixe esan zidan World Tour mailako talde bateko arduradun batek. Aitaren batean, *Maglia Nera* edo maillot beltzaren garaia etorri zitzaidan gogora. 1946tik 1951ra Italiako Giroan jantzen zitzaion sailkapeneko azkenari. Aukeratutako kolorea faxismoarekin, Alkandora beltzekin lotuko du norbait; baina ez du zerikusirik. 1926an Giuseppe Ticozzelli futbolariak lasterketan parte hartzea erabaki eta Casale bere futbol taldeko kamiseta beltza erabili zuen. Bere omenez berreskuratu zuten. 40ko hamarkada amaieran preziatua zen maillot beltza. Zaleek dirua batzen zuten, gero azken sailkatuari emateko; identifikatuta sentitzen ziren. Lanaren eta sufrimenduaren ispilu. Hamaika trikimailu egiten ziren denbora galtzeko: jatetxeetan bazkaltzen gelditu, zalaren baten etxera bisitatzea egin... *Maglia Rosak* eta *Nerak* zeukaten ospea.

Lehenak eta azkenak. Diru iturri paregabea zen. Luigi Malbroccak sona lortu zuen bi aldiz irabazita. Hirugarrena ez zuen lortu Milango helmugara bi ordu eta hogeita minutura iritsita. Zain egon eta gero, aspertuta, epaileek alde egin zuten eta tropelaren denbora eman zioten. Sante Carollo eraman zuen loria. Azkenekoz, 1951n jantzi zuen ziklista batek. Hurrengo urtean, bere taldeak emandako 200.000 lirekin bizikleta etxe bat sortu zuen gizonak. Lasterketan azkena izanda, lanbide berrian lehena izatea lortu zuena: Giovanni Pinarello.

Asteko kirolaria

"Munduko txapelketan proba olinpiko batean aritzea amets bat betetzea litzateke"

Illart Zuazubiskar abadiñarrak Kanadan jokaturako Munduko Kopan parte hartu du

Asteburuan pistako Munduko Kopa jokatu da Kanadan. Bertan, Illart Zuazubiskar abadiñarrak 14. postua lortu du madisonean, eta 16. postua omniumean.

Zelan joan dira Munduko Kopako probak? Pozik zaude lortutako emaitzekin?

Omniumean gehiago merezi nuela uste dugu, bai hautatzaileak eta baita neuk ere, lehenengo hamarren barruan egoteko moduan nengoen eta. Omniumeko lehenengo proban, *scratchean*, oso ondo sentitu nintzen, indartsu, eta postua ez zen gura besteko ona izan. *Tempon* neuk egin nuen huts. Garapen handia ipini nion bizikle-

tari eta ez nintzen gai izan hori ondo mugitzeko. Kanporaketan gustura aritu nintzen, eta puntuaketan dena eman eta sailkapenean aurrera egitea zen asmoa. Lasterketa erdirako, sailkapen orokorrean lehenengo hamarren artean jarri nintzen, baina azken unean lasterketan hartutako erabaki oker baten ondorioz, 16. amaitu nuen.

Hurrengo egunean 14. amaitu zenuen madisonean, Oscar Pelegri bikotekideagaz.

Oso-oso arin irten genuen arren, indartsu ikusten nuen neure burua, eta zerbait txukuna egin genezakeela uste nuen. Baina nire bikotekideak ez zuen bere egunik

onena izan. 170 itzuliren faltan Oskar txarto pasatzen hasi zen eta gure helburua gauzak ahalik eta ondoen egin eta berak ahalik eta gutxien sufritzea izan zen.

Aste bi barru Espainiako Kopako bigarren jardunaldia jokatu da, Madril. Momentu honetan lider zaude. Han ikusiko zaitugu?

Bai, han izango gara. Espainiako Kopan lider nagoen arren, hemendik hilabetera jokatu den Munduko Txapelketa izango dugu helburu nagusi, eta, beraz, Espainiako Kopa ez da lehentasuna izango. Hala ere, lepoan dortsala ipintzen dugunean dena ematera irteten dugu, eta, posible bada, irabaztera, jakina.



ILLART ZUAZUBISKAR GALLASTEGI
Abadiño, Txirrindularia

Beraz, argi dago Illart Zuazubiskarren urteko helburu nagusia Berlinen jokatu den Munduko Txapelketan parte hartzea dena Horixe bera. Munduko Txapelketan omnia egiteko aukera izango dudala ematen du, eta, horrela bada, gauzak ondo egiten eta daukagun dana ematen ahaleginduko gara. Munduko txapelketan proba olinpiko batean aritzea amets bat betetzea litzateke. Uste dut momentu honetan ezin daitekeela gauza gehiagorik eskatu.

hitz

artekalea 23, durango
946 810 776
info@hitzliburudenda.com

liburudenda

#salduenak

1^o

IRITSI GARA (GO!AZEN 1)
Jasone Osoro (Alai)

2^o

BASA
Miren Amuriza (Elkar)

3^o

MIÑAN
Amets Arzallus & Ibrahima Balde (Susa)

4^o

AITAREN ETXEA
Karmele Jaio (Elkar)

5^o

ZELDAK - GORPUTZ HONETATIK
Elena Olave (Balea Zuria)

ALDEKOA-OTALORA

iturgintza

BEROKUNTZA - AIREA - GASA
INDUSTRI MANTENTZEA

info@aldekoaotalora.com

Zubiakurre, 8. IURRETA
946 202 768

Arzubia 10 B industrialdea, 13-14 pabiloiak ABADIÑO
944 071 791 - 692 859 779

ETXETXO
G. INMOBILIARIA
F.J. Zumarraga, 11 - 946 814 049 • DURANGO
www.inmoetxetxo.com

AMBOTO
INMOBILIARIA
Sanagustinalde, 4 - 1 ezk. • 48200 DURANGO

ISD Inmobiliaria
del Duranguesado
Askatasun etorb. 10 • DURANGO • 946 816 666
www.inmoduranguesado.com
inmoduranguesado@gmail.com

AGENCIA INMOBILIARIA
Fernando Uribe
Barrenkalea, 15 behea • DURANGO
Tel.: 946 816 423 • **www.fernandouribe.es**

IURRETA
111 m²
AMILBURU PLAZA: 111m². 3 logela, 2 komun, sukaldea eta egongela handia. Ganbara eta garajea.
C.E.E=E 265.000 €

IURRETA
3 logela
IURRETA: 3 logela, komuna, sukaldea eta egongela. Berogailua. Igogailua. Eguzkitsua. C.E.E=E 139.000 €
C.E.E=E 139.000 .E=E

ERMODO
3 logela
2 komun
ERMODO: 3 logela, 2 komun, sukaldea eta egongela. Terraza. 21 m²-ko ganbara.
C.E.E. =E

MIKELDI
3 logela
MIKELDI: 3 logela, komunak, sukaldea eta egongela. Igogailua.
C.E.E=E 175.000 €

ALOKAIRUAN EROSTEKO AUKERAREKIN
82 m²
6
Gutziz berriztatua. Berria. Terraza. Bizitzen sartzeko prest.
C.E.E=E 175.000 €

LAUBIDETA
82 m²
LAUBIDETA: 3 logela horma armairuekin. 2 komun, sukaldea eta egongela handia. Terrazak. Ikuspegiekin.
C.E.E=E 180.000 € neg.

//ETXEBIZITZAK ALOKAIURUAN

DURANGO: Askatasun Etorbidea. Etxebizitza ederra. 3 logela, 2 komun, sukaldea eta egongela.
DURANGO: Antso Estegiz. 3 logelako pisu ederra. Sukalde berria, komuna eta egongela. Ikuspegi ederrak.
DURANGO: eraiki berria, 2 eta 3 logela. Azkeneko 3 etxebizitzak salgai. 178.000 €-tik hasita.
DURANGO: Komentukalea. 2 logela, sukaldea, egongela eta 2 komun. Eguzkitsua. Igogailua eta gasa. 150.000 €.
DURANGO: Jose Miel Barandiaran. Etxebizitza ederra. 3 logela, 2 komun, sukaldea eta egongela. Garajea eta trastelekua. Durango erdian.
DURANGO: Komentukalea. 3 logela, komuna, sukaldea eta egongela. Ganbara. Ikuspegi ederrak.
DURANGO: Hegoalde kalean. Eraikin txikia. 4 logela, 4 komun, txokoa, terraza eta lorategia. Ezin hobea.
BERRIZ
Elizondo etxetalea: Pisu guztiz eguzkitsua. Egongela, jangela, sukaldea, 2 komun eta 3 logela. Garaje itxia aukeran.
BERRIZ: 3 logela, komuna eta egongela. Ganbara. Eguzkitsua. Merkea.
IURRETA
Maspe kalea: 3 logela, komuna, egongela eta sukaldea balkoiagaz. Eguzkitsua. Igogailua.
ATXONDO: 2 logela, komuna, sukaldea eskegitokiagaz, despentsa eta egongela.
ZALDIBAR: 3 logela, bainugela, sukaldea eta egongela balkoiagaz. Berriztatua. Trastelekua.

//LURSAILAK SALGAI

GAZTELUA: 10.000 m²-ko lursaila. Nekazaritza-lurra. Leku onean. Egokia.
ABADIÑO: 1.000 m²-ko lursaila salgai. Bifamiliarra eraikitzeke baimenagaz. Zonalde egokia.
IURRETA: 5 hektarea inguruko lursaila. Abeletxe bat egiteko aukeragaz. Sarbide ona.
ABADIÑO: Bifamiliarra eraikitzeke lursaila, 1.000m². Informazio pertsonalizatua.
AMOREBIETA. EUBA: Txalet bifamiliarra eraikitzeke lursaila. 3.000 m²-ko lursaila.
//BASERRIAK ETA TXALETAK SALGAI
MAÑARIA: 3 solairuko etxe ederra. Herri erdian. Udaletxe ondoan. 160 m² solairu bakoitzean. Aukera ederra Mañaria erdian bizitzeko.
MAÑARIA: Baserria salgai. Herrian bertan. 3.000 m²-ko lursaila. Bizitzera sartzeko moduan. Oso polita.
ELORRIO: Aldape auzoa. Baserria berriztatzeke. 3 hektareako lursaila. Prezioa: 125.000 €
ATXONDO: Baserri ikusgarria Martzaa auzoan. 15.000 m²-ko lursaila. Teilatua berriztuta. Zonalde egokia.
MENDATA: Lamikiz auzunea. Baserri bifamiliarra. Berriztatzeke. Eguzkitsua. Prezio interesgarria.
DURANGO: Eraikin txiki ederra, izkinakoa. Gutziz jantzita. Estreinatzeke.
BERRIZ: Baserri ederra, Murgoitiko zonaldean. 3 hektareako lursaila.
//BULEGOAK ALOKAIURUAN
ABADIÑO
40 m²-tik gorako bulegoak. 350 €-tik hasita.
//GARAJE ITXIAK SALGAI
Durango, garaje itxiak salgai 25.000 €-tik aurrera.
//LOKALAK ALOKAIURUAN
Alde Zaharrean, hainbat tamainatako lokalak alokairuan. Etorri eta galdetu.
//LOKAL INDUSTRIALA SALGAI
MATIENA: 460 m²-ko lokala salgai. Bulegoa, komuna eta aldagela. Oso egokia.

www.inmoduranguesado.com

EZKURDI
4 logela
133 m²
EZKURDI: 4 logela, egongela, sukaldea eta 2 komun. 2 balkoi. 2 apartamentu egiteko aukeragaz. Garaje itxia aukeran.
355.000 €/ C.E.E:E

IURRETA
110 m²
IURRETA: 3 logela, egongela, sukaldea eta 2 komun. Terraza. Gas naturaleko berogailua. Igogailua. Garajea eta ganbara 8m²-ko veluxagaz.
265.000€. C.E.E:E

ABADIÑO
2 logela
63,57 m²
ABADIÑO: 2 logela, egongela, sukaldea eta 2 komun. Garajea eta trastelekua. 96 m²-ko terraza. Egoera onean.
214.500 € C.E.E:D

GOIENKALEA
2 logela
GOIENKALEA: 2 logela, egongela, sukalde jantzia, despentsa eta komuna. Fatxada, patioa eta teilatua oraintsu eginda. Garajea aukeran.
185.000 €. C.E.E:E

IURRETA
2 logela
59,61 m²
IURRETA: 2 logela, egongela, sukalde jantzia eta komuna. Balkoia. Gas naturaleko berogailua. Igogailua. Gutziz jantzia.
152.000 € C.E.E:E

BERRIZ
3 logela
60 m²
BERRIZ: 3 logela, egongela, sukalde jantzia eta komuna.
75.000 €. C.E.E:G

//DURANGO.

ANTSO ESTEGIZ: 3 logela, sukaldea, egongela eta komuna. **160.000 € / E.E.Z=E**
ERRETENTXU: 3 logela, sukaldea, egongela, bainugela, balkoia eta igogailua. **190.000 € / E.E.Z=E** Garaje itxia aukeran.
KOMENTUKALEA: 4 logela, sukaldea, egongela eta komuna. Balkoia. Igogailua. **160.000 €/E.E.Z= G**
MONTEBIDEO: 3 logela, sukaldea, egongela eta 2 bainugela. Igogailua. **230.000 € / E.E.Z=F**
SANTIKURUTZ KALEA: Etxebizitza bifamiliarra eraikitzeke 600m²-ko lurzorua. **640.000 €**
TXATXIENA: 4 logela, sukaldea, egongela eta 2 komun. 2 balkoi. Garajea eta trastelekua. **390.000 € / E.E.Z=E**
//ABADIÑO
ZELETABE: 3 logela, egongela, sukaldea, 3 bainugela, terraza, garajea eta trastelekua. **LEHEN 342.576 € / ORAIN 278.000 € / E.E.Z=E**
//BERRIZ
BERRIZBEITIA KALEA: 2 logela, sukaldea, egongela eta komuna. Balkoia. **120 .000 € / E.E.Z=F**
ELIZONDO AUZO: 3 logela, sukaldea, egongela, bainugela eta komuna. Balkoia. Kotxe bi kalean aparkatzeko aukera. **LEHEN 142.000 € / ORAIN 134.000 € E.E.Z=G**
ERROTATXO KALEA: 2 logela, sukaldea, egongela eta komuna. Balkoia. **LEHEN 95.000 € / ORAIN 85.000 € E.E.Z=E**
ERROTATXO KALEA: 2 logela, sukaldea balkoiagaz, egongela eta komuna. **100.000 € / E.E.Z=G**
LEARRETA MARKINA: 2 logela, egongela, sukaldea eta komuna. Balkoia. **102.000 € / E.E.Z=E**
SARRIA AUZO: Baserria 4.000 m²-ko lur sailagaz. **400.000 € / E.E.Z=E**

//IURRETA

AMILBURU MUSIKARIEN PLAZA: 3 logela, sukaldea, egongela eta 2 komun. Terraza. Igogailua. Ganbara eta garajea. **LEHEN 276.000 € / ORAIN 265.000 € E.E.Z=E**
DANTZARI KALEA: 3 logela, sukaldea, egongela eta komuna. Balkoia. **93.000 € / E.E.Z=G**
FAUSTE: Baserria lurzoruagaz, **220.000 € / E.E.Z=G**

//MATIENA

TXINURRISOLO: 3 logela, sukaldea, egongela balkoiagaz eta bainugela **200.000 € / E.E.Z=F**
//OTXANDIO
ELIZABARRI: 3 logela, sukaldea, egongela, bainugela, balkoia eta lonja **106.000€ / E.E.E=F**
OLETA AUZO: Banakako etxebizitza. 460 m² 3 solairutan banatuta. 4 logela, egongela, sukaldea eta 3 komun. Garajea eta txokoa. 5.000 m²-ko lursaila. **480.000€/ E.E.Z=E**

//ELORRIO

BERRIOTXOA: 3 logela, sukaldea, egongela, jangela eta bainugela. **160.000€ / E.E.Z=E**
BERRIAK
//ZALDIBAR
ZALDIBAR: 4 logela, sukaldea, egongela eta komuna. 60 m²-ko lonja etxe azpian. **60.000 € / E.E.Z=E**



iragarki
laburrak
.eus

Eguazteneko 17:00ak arte jasotako iragarkiak bariku horretako alean argitaratuko ditugu. Beranduago jasotakoak hurrengo alean

- HIGIEZINAK
- TEKNOLOGIA
- LANA/NEGOZIOAK
- DENETARIK
- IBILGAILUAK
- HARREMANAK
- AISIA/KIROLA
- FAMILIA/ETXEA

NORBANAKOEN IRAGARKIAK

Interneten eta paperean, doan: Partikularrentzako. Erregistratu www.anboto.iragakilaburrak.com webgunean eta jarri zure iragarkia (paperean argitaratu aukerari eman behar zaio) edo bidali mezua: anboto@anboto.org helbidera. Nahiago baduzu deitu 94-623 25 23 telefono zenbakira.

Paperean, ordainduta: Enpresentzako. Iragarki laburretatik bereiztua eta lauki batean nabarmenduak. Hainbat prezio eta neurri aukeran. Kontsultatu 94-621 79 02 telefonon.

Higiezinak

ETXEBIZITZAK

ETXEBIZITZAK ERRENTAN EMAN

Elorrio. Atiko polita alokatzen da Elorrian. 50 m2. Igogailua dauka. Tel.: 631 12 31 06

ETXEBIZITZAK ERRENTAN HARTU

Abadiño. Pisua hartuko nuke alokairuan Abadiñon. Tel.: 699 17 40 23

Etxe bila Durangon edo Iurretan. Lau lagunekoa familia bat etxe bila dabil Durangon edo Iurretan. Tel.: 645 73 82 31

Lana Formakuntza

LAN ESKARIAK

PERTSONAK ZAINDU

Lan bila nabil pertsona nagusiak zaintzen. Emakume arduratsua eta esperientzia handikoa lan bila dabil pertsona nagusiak zaintzen, gaez zein egunez. Gainera, berehala lanean hasteko prest nago. Tel.: 646 35 87 09

Lan bila nabil pertsonak zaintzen. Mutil nikaraguar esperientziaduna lan bila dabil pertsona nagusiak zaintzen. Barneko, kanpoko zein ordukako langile moduan lan egiteko prest. Interesa baduzu, deitu Tel.: 612 53 93 89

Lan bila nabil pertsonak zaintzen. Emakume nikaraguar esperientziaduna lan bila dabil pertsona nagusiak zaintzen. Barneko, kanpoko zein ordukako langile moduan lan egiteko prest. Interesa baduzu, deitu Tel.: 632 35 60 66

Nagusiak zaintzeko. Ni Maite naiz, San Fauston bizi naz, Durangon. Esperientzia daukat nagusiak zaintzen eta sukalde lanetan. Goizez zein arratsalde lan egin dezaket. 3 urtean egin dut lan zahar egoitza batean eta esperientzia daukat. Titulua ere badaukat. Tel.: 673 68 97 69

Haurrak zaindu. Arratsaldetan haurrak zaintzeko prest. Etxeko lanekin laguntzeko arazorik gabe. Urteetako esperientzia. Deitu lasai! Tel.: 688 64 06 04

Lan bila nabil pertsona nagusiak zaintzen. Lan bila nabil pertsona nagusiak zaintzen. Barneko zein kanpoko langile moduan lan egiteko prest. Tel.: 612 42 06 78

IRAKASKUNTZA

Klase Partikularrak Natur Zientzietan. DBH, Batxilergo eta Unibertsitateko ikasleei klase partikular pertsonalizatuak emateko prest nago. Biologia Gradua eta DBH eta Batxilergoan irakasle izateko Masterduna, ingeles C1 maila. Ikasleak, ikasketa tekniketan, edozein zientziatiko eta matematikako irakasgaiekin lagun ditzaket. Durango eta inguruetan lan egingo nuke. Kontaktuan jartzeko: deitu edo Whatsapp idatzi Tel.: 688 64 59 83

LAN ESKAINTZAK

ETXKO LANAK

Elorrioko baserri baterako langile bila gabeiltza. Elorrian 40 urtetik gorako emakume baten bila gabeiltza, domeketan baserri batean lan egiteko. 9:00etatik 20:00etara. Pili Tel.: 653 72 30 95

Etxeko lanak egiteko prest. 42 urteko neska naiz. Sukalde lanak eta

garbiketa orokorra egiteko prest nago. Arduratsua eta lana ondo egitea gustoko dauen pertsona naz. Goizetan eta orduroko prezio arrazoizkoa. Deitu eta gustoz xehetasun gehiago telefonoz. Durangaldean. Miren Bego Tel.: 649 36 54 01

Umeak zaindu eta etxeko lanak egin. 59 urteko andra euskalduna umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko prest (Durangaldea) Urte askotako esperientzia eta erreferentziak. Arantza Tel.: 636 44 82 11

Anbotok banatzaileak behar ditu Abadiñon, Elorrian eta Iurretan

Banatzaileak behar dira barikuetan alea banatzeko. Beharrezkoa da euskaraz jakitea. Interesatuak deitu Tel.: 665 71 09 31

Umeak zaintzeko pertsona bat behar da. Umeak egun solteak (gaixorik daudenean) eta oporretan zaintzeko pertsona euskaldun bat behar dugu. Esperientzia edukitzea eskatzen da (erreferentziak eukita hobeto). Nagore. Tel.: 629 75 76 32

PERTSONAK ZAINDU

Adineko pertsonak eta umeak zaintzen ditut. Emakume bolibiarra naiz, arduratsua, erreferentzia onekin. Adineko pertsonak edota umeak zaintzeko lan bila nabil. Barneko langile moduan, asteburuetan edo orduka lan egiteko prest nago, Gipuzkoa zein Bizkaian. Berehalako prestutasuna daukat. Interesatuak deitu edo Whatsapp-a bidali 602 89 50 18 telefonora. Gaztelaniaz mesedez.

Barneko langile (Interna) gisa lan bila. Adineko pertsonak (barneko langile) edota haurrak zaindu, etxeko garbiketa lanak, arropa lisaketa, sukaldaritza lanak egiteko prest nago (40 urte). Berehala hasteko prestutasunarekin. Tel.: 644 55 83 90

Barneko langile gisa lan bila. Barneko zein kanpoko langile gisa lan bila ari naiz. Orduka ere lan egiteko prest. Adinekoak edo haurrak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel.: 643 72 71 98

Pertsona nagusiak zaintzeko. Neska euskalduna naiz eta esperientzia daukat zaintzaile gisa. Eusko Jaurlaritzaren habilitazioa ere badut. Pertsonak zaintzeko prest nago, etxean, ospitaleetan, edonon... ordu solteak, lanaldi osoa... Tel.: 658 03 08 36

Pertsona heldua zaintzeko pertsona behar da. Ataunen baserri batean pertsona heldu bat zaintzeko lanaldi erdirako pertsona bat behar da, berehala hasteko. Kotxe propioa izatea baldintza ezinbestekoa da. Tel.: 653 744 988

IRAKASKUNTZA

Irakasle beharra. Eskolaz kanpoko laguntza emateko pertsona bat behar dugu gure akademian. Ingelesa ondo jakitea ere baloratuko da. Tel.: 686 81 02 03

Portugeseko klase partikularrak. Irakasle portugesa behar da klase partikularrak emateko Durangon. Tel.: 678 29 11 67

Frantsesa praktikatzeko berbalagun bila nabil. Frantsesa ikasten ari naiz, eta antzeko interesa duen Durango inguruko norbaitekin harremanetan jarri nahiko nuke, elkarrekin hitz egiten mintzaira eta ulermena hobetu asmoz. Tel.: 617 37 89 33

Klase partikularrak (LH/DBH). Lehen hezkuntzako edo DBHko Igo edo 2. mailako ikasleei edozein irakasgaitako lanak egiten laguntzeko edo azterketak prestatzeko prest nagoen 17 urteko neska bat naiz. Aurretik beste ume batzuekin lan egin dut. Orain, zientzia batxilergoko 2. maila egiten ari naiz. Informazio gehiago eskuratzeko, Tel.: 651 30 62 34

Matematikako partikularrak emateko pertsona baten bila gabeiltza. 6. mailako (LH) ume bati matematikako partikularrak eguerditan emateko pertsona baten bila gabeiltza. Tel.: 649 56 34 92

Denerik ERRENTAN

Garajea alokalag San Inazio auzoan. Garaje lursaila hilean 50 euroren truke alokatzen da Durangoko San Inazio auzoan. Harremanetarako Tel.: 603 31 12 72

Bidali ALTA
688 635 041
telefono zenbakira

Durangaldeko berriak jaso gura dituzu?



Botikak	
BARIKUA, 31 - 09:00-09:00	SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - ZORNOTZA
GAZTELUMENDI J.A. Abasolo 2 - DURANGO	ASTELEHENA, 3 - 09:00-09:00
SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - ZORNOTZA	UNAMUNZAGA Muruetatorre 2C - DURANGO
09:00-22:00	IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - ZORNOTZA
SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - ABADIÑO	09:00-22:00
IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - ZORNOTZA	SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - ZORNOTZA
ZAPATUA, 1 - 09:00-09:00	SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - ABADIÑO
IRIGOIEN Bixente Kapanaga 3 - IURRETA	MARTITZENA, 4 - 09:00-09:00
SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - ZORNOTZA	CAMPILLO Montevideo etorb. 24 - DURANGO
09:00-13:30	IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - ZORNOTZA
SARRIA Sasikoa 17, DURANGO	09:00-22:00
GAZTELUMENDI J.A. Abasolo 2 - DURANGO	SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - ABADIÑO
BALENCIAGA Ezkurdi plaza 8 - DURANGO	SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - ZORNOTZA
NAVARRO Artekaleara 6 - DURANGO	EGUAZTENA, 5 - 09:00-09:00
CAMPILLO Montevideo etorb. 24 - DURANGO	GAZTELUMENDI J.A. Abasolo 2 - DURANGO
UNAMUNZAGA Muruetatorre 2C - DURANGO	IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - ZORNOTZA
DE DIEGO Intxaurren 22. - DURANGO	09:00-22:00
BAZAN DIAZ Uribarri 5 - DURANGO	SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - ABADIÑO
LARRAÑAGA-BALENTZIAGA Berrio-Otxoa 6 - ELORRIO	SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - ZORNOTZA
EGUREN, ISABEL Trañabarren 15. - ABADIÑO	EGUENA, 6 - 09:00-09:00
GUTIERREZ, IBAN Txiki Otaegi 3 - ZORNOTZA	ETXEBARRIA Montevideo etorb. 2. - DURANGO
MELERO, ROSA MARI San Pedro 31 - ZORNOTZA	IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - ZORNOTZA
IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - ZORNOTZA	09:00-22:00
09:00-22:00	SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - ABADIÑO
SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - ABADIÑO	SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - ZORNOTZA
DOMEKA, 2 - 09:00-09:00	
SARRIA Sasikoa 17, DURANGO	



Jose Mari Munitxa Larrea

"Eguerdietan barriketan gogoan izango zaitugu"

Kalixeneko Angeluseko Lagunak



Zorion Agurrak



A ze pare! Zorionak bioi! **Imanolek** 7 urte egingo ditu otsailaren 2an eta **Garazik** urte 2 egin zituen urtarilaren 8an. Patxo handi-handi bana etxekoen partez.



Zorionak, **Endika**, zure 8. urtegunean. Egun polita eta alaia izan. Aita Lander, ama Ana, Irati, aitteite Karlos, amama Enkarna, Luzia eta Ederren partez.



GOZATU GOZOTEGI-OKINDEGIA

Ermodo, 11. DURANGO
Tel.: 946 201 663
gozatudurango@gmail.com
facebook: Gozatu Gozotegia

Zorionak, **Laida (791. alea)**! Hamabostean behin zotz egiten dugun tarta zuri egokitu zaizu. Oparia eskuratzeko txartela gura duzunean jaso dezakezu lurretako gure egoitzan: Bixente Kapanaga, 9an.



Zorionak **Irati**, iada 5 urte egin dituzu. Primeran pasa eguna. Mosu erraldoi bat etxekoen partez.



Zapatuan **Inñigoren** laugarren urteguna ospatu genuen. Formal eta zintzo jarrai deizela. Aitititteren eta amamaren partez, muxu handi bat.

Eguraldia		
ZAPATUA 🌡 21° / 13° ☁	ASTELEHENA 🌡 21° / 11° ☀	EGUAZTENA 🌡 11° / 4° ☁
DOMEKA 🌡 21° / 13° ☀	MARTITZENA 🌡 18° / 11° ☁	EGUENA 🌡 5° / 3° ☁

DIBA

K O O P E R A T I B A

Durangaldeko

Baserritarren

Elkartea

Murueta, 6 ABADIÑO - Tel.: 94 681 87 92

katerin

ardoak

iñaki

uribe

25

urte

Saltsan

Eguneko menuak - Asteburuetako menu bereziak
Delicatessena - Ardotegia
KURUTZIAGA 40 48200 DURANGO T/F 946 200 427
saltsan.com

“Dendan bizi guztirako lagunak egin ditut”

Bost hamarkada egiteagaz batera, Lutxiren janari-dendak ateak itxi ditu Durangoko Alde Zaharrean. Virginia Urkidi Lutxiren alaba izan da negozioaren buru azken hamarkadan

Virginia Urkidi Oset (Durango, 1973)
• Dendaria

AKUILUA • JONE GUENETXEA

Merkataritza puri-purian zegoen sasoian, Lutxik janari-denda zabaldu zuen Durangoko Barrenkale kalean. 50 urte geroago, Alde Zaharreko komertzioaren panorama oso bestelakoa da. Virginia Urkidi, Lutxiren alaba, denda honen inguruan hazi da. Gainera, orain hamar urte, ama jubilatu zenean, berak hartu zuen lekukoa. Eguaztenean itxiera ekitaldi xume bat egin zuten.

Noiz zabaldu zenuten denda?

1969an. Beraz, aurten 50 urte egin ditu. Zabaldu zutenean, lau urte nituen.

Zelan gogoratzen dituzu hasierako urte haiek?

Lau neba-arrebetatik, neu izan naiz hemen hazi dena. Nire ahizpek 6 eta 5 urte gehiago dituzte. Kontuan izan behar da bertan bizi ginela. Gainera, ni saltsera hutsa naiz eta erreka-duak egitea gustatzen zitzaidan. Lutxirena denda bat baino gehiago izan da.

Bai. Lana bilatzeko lekua, norbaiti erreka-duak uztekoa...

Sasoi hartan, zelakoa zen Barrenkaleko komertzioa?

Durangoko kale komertzialik onena zen, askogatik. Zazpi harategi, lurrin-denda, arraindegia, kazola-denda, fruta-dendak... Kale honetatik irten barik, erosketa guztia egin zitekeen. Begira orain zer gertatzen den.

Bizitza guztian zabalik egon diren familia negozio asko zarratzen dabilta. Sistema lau lobbygaz antolaturik dago. Hor erosten duzu, edo ez duzu erosten. Edozein hiritara bazoaz ere, komertzio bera dago. Berdin dio Madrilén, Bilbon, Bartzelonan edo Burgo-sen egon.

Merkataritza aldetik, Alde Zaharra asko aldatu da.

Alde Zaharrak hiltzen utzi dituzte. Tabernak baino ez daude. Zergatik? Zergak ordaintzen dituztelako eta udalek dirua irabazten dutelako. Hori bai, horiek ondo zaintzen dituzte!

Gatxa da Alde Zaharrean komertzio bat izatea?

Hornitzaileak ezin dira 12:30era arte sartu. Eta banatzaileek ibilbide luzea egiten dute ordutegi horri begira egoteko. Komertzio txikiari eta autonomoari ez zaie batere laguntzen.

Amaren erreleboa hartu zenuen orain 10 urte. Zelako esperientzia izan da?

Nik oso ondo pasatzen dut dendan. Jende mordoaz ezagutu dut eta lan polita da. Hori bai, nekagarria da; etxerik etxeko psikiatra ere sentitu naiz inoiz (barrez).

Itxieraren aurrean, Lutxi zure amak zer sentsazio du?

Nik denda ixterakoan, benetako jubilazioa hartuko duela esango nuke. Ni egonda, lantzean behin etorri izan da eta...

Kontuak eskuz egiten dituzu.

Amak eta biok gorroto dugu kalkulagailua. Hainbeste teknologiagaz, gazteek ez dakite gehiketak egiten.

Etapari berri bat hasten da orain.

Zabaldu nuenean, aldaketa izan zen nire bizitzan, eta orain ere bai. Baina hoberako izango da.

Zer esango zenieke bezeroei?

Eskerrik asko. Dendan bizi

guztirako lagunak egin ditut. Oso eskertuta nago, batez ere supermerkatuan karroa betetzea errazatzen sasoi honetan. Hori bai, banakaren bat gainetik kentzeko gogoia ere badut... (barrez).

Berba bitan

Ogi bat

Memaikoa

Ogitartekoa

Pernila eta piper berdea

Hondartza ala mendia

Biak. Ezin dut bat aukeratu

Pelikula bat

'The King'

Liburu bat

'La Historia Interminable'

Lau-hortza

Ainhoa Olaso Sopelana Ikaslea



Grebak ez du ezertarako baliio: alantre baten gainean

Egunerokotasunak, gurutzatutako bizitzak dira soilik, urtzear den mundu honetan, keinuak eta begiradak. Jimmy izena zuenagatik, hitzik ez Caja Laboralak. “Zerbait gaizki egingo zuen” entzun nion bati.

Pizza banatzaileak gurekin zuen ikasi. 7 gradu kalean, berandu da: hamaikak. Baina lokalean afaririk ez eta... Bizikletan dator Hassi. Eta zatirik nahi ez duenak, aitzakiarik ahulena: edertasun baten partez, anorexia eromena.

Instagramen postulatu, ospe aparatua, jarraitzaile, bihotz, mezu... Mobila dardaratu. Mobilari begiratu. Mobila dardaratu. Mobilari begiratu.

“Barkatu” gerritik heldu dizun hirugarren aldia eta ez zaizu gustatu. Zilborra bistan eta damuaren mamua nahiko duzu akatu.

Gurasoengandik salbu? Iritzi emaile hauen esklabu, “horrek maritxua dirudi” kontrakoa esateak beldurra ematen dizu zuri. Berdina al da beltz edo zuri? Lagunarteko lodiena aldagelan urduri, dutxatu gabe doa kalera, normalena dirudi.

Aurten jada bederatzi, lanean hildakoak. Uniformea garbi utzi dizu amak ohean, praktikaldian jarraitzeko metalean. Kobratu gabeko lan ordutegia eta zure onerako da, agian. Euskal Herrian, Urkulluren gutuna, agur t'ardi laguna: “Ez da zuk uste duzuna, Madril da arduraduna”.

Droga berria auzoan duguna, hautsik ez sudurzuloetan baina patrikak daude hutsik. Aurkezleak ez du hitzik, atzerakontua dator tik-tak-tik. Irain arrazistak futbol zelaian, irain matxistak whatsapp soslaian.

Herriarrok ez dugu distirarik behar, bizitzan duina eta ederra dena nahi dugu, hau dena erortzeak.



ALKIMAX
Alquilamos soluciones

BERRIZ Eitua industriagunea, 71C · Tel.: 946 824 550
GERNIKA Goiko Ibarra, 26 · Tel.: 946 271 310

alkimax@alkimax.net

www.alkimax.net



ALTREX markako aluminiozko aldamioa

Arina da, oso eramangarria eta ondo egokitzen da espazio txikietara

